

EUSKAL ALDIZKARIA

IROKO

4. zenbakia 150 pzt. 1990ko Uztaila



Edonora zoazela ere,



eraman ~~E~~zazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

AURKIBIDEA

Artak	4
Inbat historia: Lizarrako ruak eta Orioren sorrera	5
Errrian galdezketa: intrabandoa	7
Entzu zaharrak	8
Herriko musika-giroa	9
Genetik piska bat	18
Irtosoak: Jon Sarasua	21
Hiru bere argazkilarien usita: RAMIRO	22
Karrizketa: Benito Lertxundi	26
Unitoren kantuak	30
Anpotik etorri zaizkigunak: Herriko kanpistak	32
Orriatarrak munduan zehar: Alberto Oliden	35
Orriatarrak	37
Idaletik: Oizarte-Ongizate erbitzua	40
Induren artikulua	42
Literatura-txokoa	44
Slediorioa	46

RREDAKZIO TALDEA

José Arruabarrena
Iñaki Etxeberria
Iñaki Etxeberria
abier Gaitón
Ana González de Txabarri
Iñaki Hurain
abier Zabaleta

LE HONETAKO COLABORATZAILEAK

Angela Lertxundi
Aitzki Danbolín
Jon Sarasua
Santi Zaldúa

ARGAZKIEN

Ana González de Txabarri

AZKEN ORRIALDEKO MARRAZKIA

José Ramón Salsamendi

Lege gordailua: SS 346/90

KARKARA laugarren alea du eskuartean daukazun hau eta urtebeteko bixitza betetzen du beronen bitartez. San Pedrotan jaio zen eta beraz San Pedrotan izango ditu bere urtebetetze ospakizunak. Eta pozik gaude laugarren zenbakira iritsi garelako eta segitzeko modua ere ikusten dugulako. Badirudi jendea pixkanaka ari dela KARKARA ezagutzen eta gainera gustokoa duela.

Jai giroan ospatuko dugun lehenengo urtemuga honetarako egokia iruditu zaigu jaiak bere berezkoa duen musika aztertzea eta horretarako herriko musikariengana jo dugu beren berri jakin asmoz eta laugarren ale honetako orrialdeotan dituzue gure musikariekin izandako elkarrizketen emaitzak.

Guk ere jai egitarautxo bat prestatu dugu eta horren barruan KARKARA hau posible egin duten guztiak mahai baten inguruan elkartzea izango dugu ekitaldirik nagusiena, •Lege Zaharra•ri eusteko. Afari honen ostean banatuko ditugu gure •Lehen Literatur Lehiaketa• ko sariak. Eta kantatu egingo dugu. Izan ere bertsolari batek esan zuen bezala •Kantatzen dakien herri bat ez da inoiz hilko•.

KARKARA

OHARRA

Orain dela urte bete martxan jarri ginenez geroztik, batazbeste, bostehun ale saldu ditugu zenbatik bakotzeko.

Gure asmoa zen bezela lau KARKARA kaleratzea lortu dugu. Urte hasieran herriko dendariei aukera eman genien guri laguntzeko bere iragarkiel tokia bat eginnez KARKARA barruan. Gure eskerrik guztiel. Norbajtek gauza bera egin izanez gero, jarri daiteke gutako edonorekin harremantian.

Bukatzeko gogoratu zain tokietan aurki dezakezuen KARKARA.

TABERNAK

Peñanean (Salsamendi)
Errusta
Tragoxka
Bordatxo
Arkaitz
Kanpineko Tabernan ere bai
uda garaian.



LIBURUDENDAK

Iturain
Hontza (Jehan Sánchez)
Onaindia

Hauet ere gure esker beroenak
bere laguntza eta atsegintasuna
gatik.



Orioko kaleetan zehar batera eta bestera ibiltzen diren oriotar motozale buloso horiei dedikatua.

Kontzertua: Gaueko 9retan ORION

Haineko Laukotarentzat. Concerto Grossu per «Tubo D'escape»

1. Mugimendua: Allegro con brio

Laukoteko instrumentu guztia bat bestearren atzetik hasten dira martxan. «Tempoak dioen bezela indar osoz sartzen dira: Lasai-lasai bazaude, amaitu zaizu; zerbaite entzun nahi baduzu, utz ezazu; irakurri nahi baduzu, jai

duzu. Isten dituzu leihoak baina alperrik, buru barruan taladro bat bezela sartzen zaizu zarata.

2. Mugimendua: Andante con moto

Une batean ixilasuna egiten da. Ez da egia izango? Ba ez, etxepaan, espaloi gainean jarri eta lau kontzertulariak solasean daude baina... motorik geratu gabe. Puzkarkada ezatsegin eta higuntingarri patxadoscak entzuten dituzu. Hau mugimendu politikena eta luzeena da. Iadanik ez dalkiz zer egin. Lastima ematen ditzu zure lore-ontzi politena «musikalarien» buru gainera botatzea. Eta zer

moduz plantxa? Amorru bizian zaude, kabreatu eta haserre. Baina musikak jarraitzen du.

3. Mugimendua: Allegro vivace

Abiatu dira berriz. Euli madariatuak bezela joan direla uste duzunean, badatoz ziztu bizian. Tarietxo bat, Iruditu zalt... Ez... ba... BAI!!! hau mixeria! Behin eta berriro.

Bukatzen denean izugarrizko burukomin eta etsipenez ohera zoaz.

Bihar bestea izango da. NÓIZ ARTE?

Ana Gz. de Txabarri

EROSLE AUTOZERBITZUA

Janariak, garbigaiak, edariak
Eusko Gudari, 22 Tfnoa: 83 38 75

ITZIAR

Kanpinerako, hondartzarako eta kirolerako artikuluak.
Eusko Gudariak, 23 Tfnoa: 83 31 03

TXOMIN ARRAINDEGIA

Eusko Gudariak, 42 Tfnoa: 83 27 47

BEREZITASUNAK: URDAITEGIA ETA GAZTAK



Pelotari, 1 Tfnoa: 83 25 65

LIZASO ERLOJUDENDA

Erlojuak, Pitxiak
Kaia, 5 Tfnoa: 83 10 90



Orrazkerak
Aita Lertxundi, 22 Tfnoa: 83 12 61

ZENBAT HISTORIA!

LIZARRAKO FORUAK ETA ORIOREN SORRERA

Aurten Lizarran ospakizun berriz bat izango da bere Foruen berdatzirehungarren urtemuga dela eta. Eta berezitza izango da baita ere Oriorentzat eta Oriokin batera. Gipuzkoako zenbat herrientzat, batez ere kostaldeko herria; Lizarrako Forua amatzat dutelako denak. Gipuzkoako

eguna ospatuz, bi lurralde hauek arteko antzinako erlazio eta lotura handitu nahian eginkizun batzu izango direlarik.

Gaur Foru hitzari oso zentzu zehatza ematen diogu; Foruak Euskal Herriko lege zaharrak dira gehienentzat. Baino, betidanik, esanahi zabalagoa izan du, Forua,

lege edo arau edozein bilduma da, eta hiriak sortzen zirenean Erdi aroan ematen zitzazkien legediak ere Forua deitzen zitzalon. «Carta Puebla» bezela ere ezagutuak dira.

Foruak hiri bateko bizitza arautzen zuten eta era guztietako normak jasotzen dute: alegia, non eraiki herri berria, nolakoak izan behar zuten etxeak, zeinek zuten hara bizitzera joateko eskubidea, zein zergak eta nori ordaindu, nola eratu udal gobernuaz, nola aukeratu ordezkariak...


Orohar esan behar da aurrerabide eta pribilegio asko zer karkieloa Forua lortzeak eta herri eta hiri gehitze handia izan zela garai honetan.

Lizarrako Forua 1090 urtekoa da. Foru hau bera Donostia lortu zuen 1180an. Beno, ez zen berbera izan, zenbait gauza berri zituen eta hau da interesgarria: Iehorrek herri baten Forua, Itsasertzeo beste bateri egokitut zitzalola. Kasu gehienetan Foru hauak merkatat nahiz artesau jendeari ematen zitzazkien, bere ekintzak ahalik eta erosago antolatzeko.

Donostiatik ia kosta guztira zabaldu zen: Oriokin batera, Getaria, Zumai, Zarautz... eta beste batzuek ere jaso zuten, itsasotik egiten zen komerzia errezteko.

Itsaso bidetik sartzen ziren generoak ez zuen «dezta», izeneko zergarik ordaintzen (gaurko IVA antzekoa), bertako itsasontzilek ere ez zuten zergarik ordaintzen kain sartzean; ogia, okela eta ardoak ere zergaz libre sartzen ziren herrian; ez eta ere ez zuten bertakoak ordaindu behar errota, bainu-elxe eta labea erabilitza-gatik ezer.

Oriok 1379an jaso zuen bere Forua, azkenetarikoa izan zen, eta herri bezela, Donsotiatik banatuta baina bere lege berdinak zituelarik, hasi zen bere bizia egiten, lehen Donostia Lizarratik jasotzeraoa egin zuen bezala.



Ana Gz. de Txabarri

HERRIAN GALDEZKA:

«KONTRABANDOA»

Jon Sarasua bertsolari gazteak, aurreko batean agindu zizun bezala, bertsoen sailarako hamar bertso bidali dizkigu. Mutilak, gure herriko gorabeheren ezagutzallean bera, zein gai atxeratuko bere lana osatzeko eta KONTRABANDOArena, eta ez pentsa bustitzen ez denik, izan ere esandakoak ez baiti dira azalekeriak.

Guk, Jonen ausardiaz kontafiatuta, kontrabandoaren gaiari heldu nahi izan diogu eta kalean zebilen herriko zenbaitsu, bertsoak irakurri eta gero, galdu du diogu eta zer pentzarazten dioten.

JUBILATU TALDE BAT

Eladio Zubizarreta, Gonzalo Dominguez, Juan Loidi, Agustin Manzisidor, Julian Peña.


■ Kontrabandoak herrriari oso imajin txarra ematen dio, eta gasteintzat ere oso ejenploa kaxkarra da, zergatikan hauetikusten dute hortik dirua errez datorrela, eta gero lan egin nahi ez. Orion ederki asko ikusten da hori.

■ Gure gazte garaien ex zen orain bezala, orduan rodamien eta kubiertekin ibiltzen ziren, baina inor ez zen aberasten. Orduko

kontrabandistek lanera joan behar izaten zuten,

■ Egunen batean zerbaite gerta- tzea ez da harritzeko, izan ere tabakoakin dabilenak ere berakez daki zer ekartzen duen, eta jakin- da ere, bere gainean daudenek batzutan pasatzen behartu egingo dute.

■ Kontrabandoa ez da pasatzen hemen bakarrik. Zumalan, Pasaiako, Hondarribian eta bestie hainbat tokitan ere izaten da, eta beharbada Orion baino ehun aldiz gehiago. Guk hemengoa aditzentegu, eta nola herriak ijiten fama daukan, horregatikan gehiago entzuten da gure izena.



Herrian galdezka



**JUAN KARLOS ELIZONDO
(Txus). 23 Urte. Arrantzalea**

■ Bakoitzak bere bizimoduua bilatzen dik, batek pentzatzen badu hobeto biziko dela itsasora joan gabe, berak jakingo dik zer egiten duen.

■ Neri jendea tabakoarekin kontrabandoan ibiltzea ez zaidak gaizki iruditzen, ez zekiat beste ezer gehiago pasako ote duten, bainan tabakoa dek gauza bat guk kontsumitzen deguna.

■ Neretako polizia jakinaren gainean egoten dek gehienetan baina beraiet ere interesatzen zalek, eta droga baldin bada hobe, zeren halek bait dira gehien salten dutenak.

■ Oriogatik asko hitzegiten dek kontrabandisten herria dala hemengo batzuk harrapatu dituztelako, eta orain horren fama zeukan, baina herri askotako jendea zegok hor sartuta.



JON MUJIKA. 26 urte. Patroia

■ Kontrabandoak herriari ezer onik ez ziokekariz. Hasieran jendeak esaten diki bi edo hiru urte pasa, dirupiskatzen eta gero utzi egingo diat. Baina gero utzi eta lanean hasterakoan askoz gogorrago egiten zaio edozein lan.

■ Tabakoak horrenbeste eman al dezaken? Goiko jendeari diru dezena emango zioke, behokoel ez ordea, zer edo zer bai, baina lan egin gabe blitzeko haina ez neretako.

■ Nere iritziz erreztasunak bazeudek kontrabandorako, segun zein inspektore tokatzen dan edo zein momentutan egiten dan hora sobornatzea zaialgo edo errezago izango dek, baina garbi zegok konponketak batzuk badau dela.

■ Zerbait grabea gerta daitekelo? Horixe baiez! Galizian izan bada hemen zergatik ez?

■ Nik uste diat kontrabandoren moztea ona izango litzatekelo eta mundu guztientzako lana izatea ere bai, bainan lanik ez daukan eta hortik bizimoduua ateratzen duenari ondo irudituko al zaiok?



**PELLO ESNAL. 24 urte.
Tabernaria**

■ Diru erreza da hortik datorrena, gero pertsona horiek ohitzen dira diru kopuru handiak manejarren eta falta dutenean orduan problemak azaltzen dira.

■ Neri iruditzen zait kontrabandoaren munduan kriston mafla egon behar duela, ez hain zuzen tabakoa edo dena delako pasa-tzen ibiltzen direnen artean baizik eta «kargu» altuetan. Gero norbait harrapatzekotan beti katearen azkenekoak izaten dira.

■ Ez dakit tabakoak horrenbeste ematen duen ala ez. Aditzen de-naren arabera oso merke ekartzen omen dute. Horrela bada tarte polita geldituko zale, zergatik saldu denok dakigu zein preziotan egiten den.

KONTU ZAHARRAK

JOLASAK

KARKARA aldizkariko arduradunek eskatu ditzakide gure gazte denborako kontuak. Lehenago ere baditut ierrotxo batzuk idatziek eta oraingo honetan gure jolasak eta beste zerbaile argitaratu nahi nitzuke.

TXAPEL JOKA, AILUZKA, MIZMIZKA...

Orduko jolas nagusienetako «txapel joka» zen. Askotan talde handia nola izaten zen, bi, hiru edo lauraino ere izan ohi ziren «axi».

Aixi nortzuk izango ziren jakiteko, «don-don» egiten zen eta hemen suertatzen zirenek beste guztia «jox» behar izaten zituzten korrika-salo ederrak eginez. Jotako denak «txokora» etorri behar zuten eta horma haren kontra egon «libre» zen beste batek askatu arte. Abi zen batek edo gehiagok guardia egiten zuen inor libra ez zedin eta, gainera, libre zenen bat «jotzen» bazuen, hura ere horma etorri behar zen.

Konturatuko zarete oraingo footing-aren beharrak ez zela, ze jolas honetan izerdi ederrak atera ohi ziren.

Eguraldi txarra bazen, eliz ataria joaten ginen gehienetan; hemen «ailuzka» Jokoan edo «mizmizka» ibiltzen ginelarik. Joko hauek nahiko asto-Jokoak ziren.

Uztal-jokoa ere oso gogokoa genuen, hemen ere hamalka izerdi ateratzen zelarik nor gehiagoko uztatarekin korrika herri guztian zehar.

PELOTA ETA BESTELAKOAK

Pelotari buruz, zer esant, frontolitik ateria ere ez ginen egiten; oin hutsik jarri esparkin edo abarketak ez hausteagatik eta gehienetan «fueraka». Beste jostailu asko ez baguenen ere, batek ez bazeen beste batek, izaten genuen eskuko pelota.

Fueraka joku honetan, sartzen ziren taldeko denak jokoan eta norbaitek falta egiten bazuen. Jokoak kanpo gelditzen zen. Berriro sake egin eta honela banaka-banaka falta egiten zuen guztia kanporatuz, azkenean bi bakarrik

gelditzen zirelarik. Bi hauetan garaile gertatzen zenak, hurrengo talde guztia sartzen zenean, es-kubidea zuen falta bat egina agatik aurrera jarraitzeko, baina orain beste guztien baldintzaean gelditzen zen. Eta horrela arratsalde guzilian aspertu arte.

Partiduak ere asko antolatzen ziren. Oraingo aldean esku-pelotan askoz ere gehiago jardutzen genuen, askotan xelebrekeria ederrak ere gerta ohi zirelarik. Pelotari onak txarra zenari eskubi hutsez edo ezkerrez bakarril bestetan, berriz, tanto batzuk emanda, bat derrebeska dela, hanka azpiz, etab.

Nola gerotxo arte frontoia irekia zen, esan nahi dut, estalperik gabea, euriaren eraginez lurra bustia bazea, eliz ataria, zimitorria, Joan ohi ginen pelotan egitera. Garai hauetan herri gehienean izaten zen holako arkupe zerbaile pelotan egiteko. Adibidez, Atano III, Azkoitiako arkupetan ere ezin hobea omen zen beste frontoietan hala bazea ere.

Hemen ere baziren pelotari trebeak zimitorioan. Nik ezagutu nuenerako gizon heldua zen baino entzun izan nuen Pedro Joxe Martíbalar, goitizenez «Mola» edo «Txolarra», horietako zela. Gizon hau benetako pelotaria izan behar zuen eta konlatzen zuten, plaza akleko zimitorioan, pelotari bote egin ur bedeinkatu ontzi parean eta, aurreko horman joaz ur bedeinkatu ontzian sartu bai ez, aldiro hamar xentimo nahi zuen guztia jokatzen ziola. Konturatuko zarete zenbaterainoko erreztasuna behar zuen hori egiteko. Gizon hau, arrauntari bikainenetakoak ez ezik, indartsua ere bazeen eta esalten zuten, balta ere, Zarauzko estazioko ande-

nean, hanka geldian, apustu egia eta batetik bestera salto egina zela.

Igande arratsaldetan, berriz, plazan Mariano «Danbolín» nahi-koa zen bere txistu-hotsez gu denok dantzera eratzeko. San Pedro jai batez, hiru ordu laurdeneko saioa egin zuen gelditu gabe. Hortik atera kontuak dantzan hasi zirenek nola bukatuko zuten.

Garai hauetan, fandango edo arin-arin bat entzun orduko, ez zen, orain bezala, talde bat dantzuan hasi eta gainontzekoak hairi begira egoten, baizik plaza guztia izaten zen taldeak dena osatua. Beste horrenbeste geratzen zen trikitilariek hasi orduko.

Txistua aitatu badut, tartean musika-banda bat ere baguenen alkar txandatuz jaiz arratsaldea osatzen zutela.

Garai hartan, oraingo oparotasunlik eizenez gero, larruzko oinetakoak euria egitean bakarrik era man ohi genlituen, eta esparkin edo abarketaz osatzen ginen. Abarketa-pare batek pezeta bat balio zuen eta askotan ikusten zen, kalera irten eta arratsalde erdira trumol, euri edo horrelako zerbaile gertatzen bazen, oin hutsik jarri eta abarketak eskuan zirela etxera etorzea.

Euri-arropatza, berriz, zer esan? ba... inork ere ez genuela, norberak erosirik behintzat. Goigoan dut, belli izaten dira herrian bai neska edo mutil aurrera begirakoak, eta mutil bat gabardina berria jantzita atera zela kalera. Ba handik aurrera «Trinxeras», goitizena delitzentzitzen zitzalon mutil honi.

Hurrengoan gehiago.

Patxi



ORIOKO MUSIKA GIROA

Gure herria zerbaitengatik nabarmendu izan bada eman dituen arraunlariengatik zan da. Baino esaterik badago huts handirik egiteko heldurrik gabe musikariak ere asko eta onak direla Oriotik sortuak.

Bati aditua diot Orion meza entzutea zenbait kontzertutara joatea baino atsegina-goa dela. Gehiegikeria ala ez, kontua da Orion zaletasun eta sentiberatasun berezla lagoela musikarekiko. Honen frogarik nabarmenena ondorengo orrialdeotan agertzen izueguna da.



- Patxi Danbolin
- Musika banda
- Dantza taldea
- Txistulariak
- Txaranga
- Musika eskola
- Trikitilariak
- Koruak

PATXI DANBOLIN

Musika ardatzatzat duen zenbaki honetan, ezinbestekoa irudi zuagutu gure Danbolinen aipamena egitea. Egia esan, alpamena baino zerbait gehiago ere egiteko asmoan gura. Izan ere, denok dakin gun bezala, agian gaztetxoz ez hainbeste. Patxi musika munduan buru-buruan izan dugu betidanik. Baino gertakarien ondorioz, bera ikusteko aukera baka rra kalean txirringa gainean dugu. Horrela garai batetan izan genuen lotura, egun guztiz laxatua somatzen dugularik. Dena den, gure nahia ez denez doinu melan koliko batetan murgiltzea, ba, garai berezi haietako flash bai zuen berri ematea erabaktu dugu, beste gauzatxo batzuen artean. Egia esan, ziur gaude, zuen artean batek baino gehiagok burua balezka mugituko duela eta irrifare txiki batez ondokoart esango diola berak ere bizi izan duela aurrekaidean duena.

Gogoratzen al zarete saloi zaharreko entsaiu haietaz? Ez da kit nola moldatzen ginengen baina beti «segundokok kalea!!» esaldia aditzen genuen. Egia esan, Guinesseko errekor denak puskatzeko kapazak ginengen gure marruekin. Eta zer diozue gure aurrekaldean, arbela beltz hartako gol partearen zegoen argazki hartaz? Nola zioen bida? Abai, «La voz del niño cantor»; A ze begizuloak zi tuena gixa joak. Baina Patxik behin eta birritan zioen haren antza behar genuela izan eta etxearen ispiu aurrean jarrita praktikatu behar genuela.

Baina hor ez da dena bukatzen, solfeoaz eta koruaz gain, txistu, kitarra, eskusoinua e. a. luze batzen lehen pausuak erakutsi zizki gun honoko esaldi hau errepikatzuz: «Orain ez didazue kasorik egiten, baina egunen batetan konturatuko zarete orain ikasten ari zareten hau zeinen garrantzitsua izango den bihar».

Bere urtetako lan guzti halei nobalitzat eskerrak eman nahiz. 1982an omenalditxo bat egin genuon, Bertan, orduan bizirik zegoen txarangaren laguntzaz, egundoko festa giroa jarri genuen lehenik Halea sozietatean eta gero herritik kaleetan zehar. Hura izan zen hura eguna!

Guzti honezaz gain bida aipatu

behar dudan beste zerbait ere, eta egun guztiz present dudana. Patxiren tailerren geundela Miren, Idoia eta ni eskusoinuko entsuan, guztiz haserrefurrik azaldu zitzagun esanaz: «Ez dago eskubiderik, euskara batua dela eta, guren galduko dugu. Betidanik entzun izan dui gure zaharren artean, galdera egiterakoan saldarabilera balira gaur egun ez dut ia entzun ere egiten».

Bestetik euskaldun berriei esaten duten «nere ama, nere anaia, nere alia» e.a.k belarrik mina egiten didate».

Bi gauzatxo hauetan orduan buruan sartu zitzakidat eta gaur egun oraindik bueltaka darabilikit. Izan ere Danbolin musika munduan ez ezik euskalarren alde lan asko egin duena da. Horren frogarik garbieta aktzikart honetan duzue, berart esker kontu zaharrak eguneratu egin bait ditugu.

Azkenik egóera hau aprobetxatzuz Patxi eskerrak eman nahi dizkizut nere aldetik erakutsi didazun orogatik. Mila esker PATXI.

Marisa Arruabarrena



JUSIKA BANDA

Felipe Arostegik, hainbat urtean Musika Bandako zuzendaria zandakoak, ez du galdu bere zetasuna. Bereganago jo dugunean errak jasotzeko, hantxe aurkitu lugu musika entzuten bere ixean. Ez du telebistako kontzertu bat ere galtzen eta haserre gertzen da bi batean ematen baliitzte, bat ezin duelako entzun.

Gaztetan tronbola jotzen ikasi zuen, baina gehien gustatzen zilitziona bombardinoa zen. Gogo guztiz hartu zuen eta sokiaduska egilea joan zenean 1930an. Banda del Alto Estado Mayor-en sartu zen. Berak aiorruta, han ikasi zuen gero, Orioko Itzultzerakoan, baliokoa izan en guztia Bandarekin lanean asteko 1933an zuzendari bezela.

Baina ordurako bazuen Oriok Musika Banda. 1927-1928an sartu zen Joaquín Cortés alkate zelarik, eta benetan bitxiak izan ziren lehen pausoak: Extremeño al izan zen aurrenengo zuzendaria, Marin, arratsalde batean Toki-alai tabernan geratu eta musikalari baten beharraz hizketan arreola entzun zuen, Bilborako bidean, herriz herri, lan bila, beste ezaugarririk gabe, zebilen garai hauetan. Musikalari zela esan zuenean, Alkatearen aurrera eman zuten eta lanean hasi zen.

Ez zen makala, ia instrumentu zuztiak ezagutzen zituen nahiz eta berarentzat tronpeta izan gozokoena. Baina musicalari on bezo diru gastatzale ona zen, eta jokuan eta apustuetan dirua galdu, zorrak ere utzi eta egun batean desagertu egin zen.

Baina jarrai dezagun Bandarekin. Gerra garaiko urteak utzi eta oso martxa segitzen du. Bi saxo, bi klarinete 1., hiru klarinete 2...



Plazan baltzen

bombardino bat, bi baju, bi fliscornio, hiru tronpeta, kaja bat, rekinto bat, platoak, eta bi tronboez osaturik zegoen. Astean hiru aldiz egiten zituzten saloak, eta igande eta jai egun guztietan jotzen zuten. Katiuskak egin zuten estreinua, eta baltzen artzeko pasodobleak, tangoak, balsak eta boleroak izaten ziren estimatuak. A ze garai! Elizako agintariak ez zituzten begi onez ikusten halako eginkizunak, eta erne ibiltzen ziren kongregazioko andreak bijilotzen plazan, emakumek emakumezin dantzak eginezaten. Pixkanaka ohitura al-

datzen zihoazten neurriean, inguruko herrietatik (Lasarte, Donostia, Añorga,...) elortzen zen jendea Orioko plazara igandero.

Elizak eragorpenak jarri bazi- tuen, beste hainbeste gertatzen zen Udalarekin nahiz eta aitzeki berdinak ez izan; zenbait alkateri tripetako mina egiten zion horrelako «korakerietan» dirua gasta- tzen ibili beharrak.

1960-1970 hamarkadan, diskotekak hasi zirenean, etorri zen Bandaren bukaera. Jendeak ez zuen dantzariak egiten. Plaza haurrak izan ezik, hutsik agertzen zen.

Orioko jendearentzat garai bat alaitu zuen Musika Bandak. Gaztetxoak ez dira oroitzen, txikiek ez dute ezagutu. Guztiotzat Banda desagertzearikin batera berarekin maleletan galdu zen musika zuñean entzuteko aukera bakarrenetakoa. Felipe Arostegi bezelako musikazaleak etxearen sartu dira, eta musikoz gozatzeko aukera bakarra, bakarrikako aukera bihurtu zaigu.

Ana Gz. de Txabarri



1948ko Santa Zerilli eguna

Orioko euskal dantza taldeari buruz mintzatzean, denot pertsona honen irudia etortzen zaigu burura; Benito Britt, Honela, berarengana jo dugu elkarritzeta bat izateko asmoz eta baita ederra eduki ere;

KARKARA: Noiz sortu zen Orion talde hau?

Benito Britt: 3 etapa bereztu genitzazke. Hasiera batean Elizaren babespean mugitzen ginen, garai hartan edozein euskal ekintza kulturalak gaizki ikusiak bait zeuden. Honela, lehenengo aldiz San Luis kongregazio barnean aktuatu genuen Zendoian 1956an.

Beranduago 1961 aldean hasi nintzen lanean parejekin. Malla oso altua zuten eta zenbait kanpeonato infantil eskuratu zituzten. Honen ondoren, 1977an GORZINTZI taldea etorriko da eta grupo bezela funtzionatuko du.

Karkara: Nola sortu zen, nolako giroa zegoen talde hau sortu zean?

B.B.: Jendeari beti gustatu izan zalo dantza. Herriak beti eskatzen du zerbaiz ez dagoenean balina gerro hau sortzen denean ez zalo kasu gehiegizik egiten.

Karkara: Zein garapen izan zuen dantza taldeak?

B.B.: Talde honekin inguruko dantzak dantzatzu gain, hemen ezagunak ez ziren zenbait ekarri eta ikasi genitu: Behenafarreko dantzak... Guzti honetan asko algundu zigutenean Gotzaldi donostiar taldekoen kideek. Teoria oso ona genuen balina beharbada alatsa ekipamendu teknikoan zegoen, entrenatzeko barra falta zitzagun, gimnasia zuzenduko zuen norbait.

Karkara: Zergatik desagertu zen taldea?

B.B.: Faktore ugari egon dira taldearen garapena oztopatu du-

tenak. Nik uste dut oso lojikoak eta ulergarriak direla; multe askok itsasora joko dute, besteak estudiatzera... Honetaz aparte, onartu beharra dago oso gogorra dela, egunero entsalatu behar da, sakrificio eta disiplina handiak eskatzen ditu. Grupo ona zen eta herri askotan egiten genituen desfileak eta mala hau mantenitzeko esfortzu gogorrak eskatzen zituen.

Baita ere talde barnean txiki eta helduen artean batzutan arazoak zituzten.

Karkara: Nola ikusten diuzu gaur egun dantzaren asuntoa Orion?

B.B.: Lan piska bat egiten bada, beti zedozer lortzen da. Pena bat da. Dantza taldea eskola bezela irekita manterdu genuen orain gutxi arte balina ez genuen progresiorik ikusten.

Idola Etxeberria





Duela hogei edo hogeiabi urte Jose Antonio Atorrasagasti, Juan Jose Oilden (Pastelero) e.a.k erakutsiz hasi ziren Blas Urkizu, Juan Karlos Intxauspe, Segurola e.a. txistuaren munduan.

Gaur egun Udaletxearri eskatutako lokal batetan entsalatzen dute astelehen eta ostiraleko. Gaur lokal fijo bat badute ere, garai batetan batetik bestera ibiliak dira; Salolan, Kofradian, Zarautzeta e.a.

Txistularien talde hau •Denen borondatearekin aurrera doa• Maribl Ibarbiak esan digun bezala.

Beraien ekintza, orain arte igandetan eta festetan kalean zehar jotzea baren ere, egun Aiako danza taldeak eskatuz Alan, Santion, Aristerrazun e.a.ean ere jotzen dute.

Udaletxeak ez die diru laguntzik ematen baina beraien diotene bezala, •Ez dugu diruagatik egin•.

Miren Etxeberria
Marisa Arruabarrena

1970. urtean musika bandak bertan bera utzi zuen bere bidea, txarangaren hazia erin zuen. Izan ere, garai haletan ORIO estropadetan irabazle izaten hasi bait zen eta gure mutilei alirona kantatu behar zitzaien. Horrela, garai balean bandako partaide izan ziren batzuk entsaiotan hasi ziren eta hauekin batera beste musikalari gazte batzuk.

Gero eta txaranga handiagoa zen eta bere umore izugarriaz herri osoa pizten zuen. Hain ospetsuak egin ziren non gure herritik ez ezik inguruko guztietatik ere deitzen bait zieten. •Oraindik oroitzenten naiz, gure biholzetzan nola esaten zizkigun, maitasun hitz politikak...»

Baina beti bezala, doinu gozoak eta alaiak puskatzentz dire gure herrian. Haserreak eta gaizkiuleratuak nagusitu ziren eta akabo gure herriko festa.

Egun, haletako batzuk jarraitzen dute, batez ere tanborrada-rekin batera iritzen dira. Eta bada ezpada ere, alirona ere entsalatzen jarraitzen omen dute estropadak irabaziko ditugulako esperanza itsuarekin.

Marisa Arruabarrena





«ORIOKO MUSIKA IKASTETXEA» —hala du eta izena pape-retan— Orioko Udal Plenoen 1986ko malatzaren Sean hartutako erabaki baten bitartez sortu zen ofizialki: asmoa, hala ere, lehenagokoa zen. Iniziatiba garai haletan Elizako Kortuaren Zuzendaria zen Martin Lizasorena izan omén zen. Honek, gaitari buruan buelta batzuk eman ondoren, planteatu zien Alkateari eta Udaleko Kultura Batzordeko burua zen Fernando Ortiz de Guineari, oriotarren betidaniko musika-zelatzena kontutan harturik, honelako zentru bat martxan jarretearen komenientzia. Fernando ri, nonbait, idea ona iruditu zitzakon eta berehala hasi zen hau gauzatu ahal izateko gestioak egiten.

Gestio guzti horien ondorioz, 1986-87 ikastaroan hasi zen Musika-Ikastetxea eskola ematen Joaquin Puenteren zuzendaritzapean eta guraso-batzorde zabal baten laguntzaz. Hasta ere, Orion gauza guzti hauek hasten diren tankeran, indartsu hasi zen: matrikulazio-kopuru altua, guraso-en implikazio-malla ona eta apustuari eusteko gogo sendoa izan ziren lehen urratsetako ezaugarri. Gero, ondorengoko urtean, matrikulazioak behera egin zuen eta guraso-en hasierako gogo bero hark ere piska bat epeltzera jo zuen.

1987-88 itasturtearen bukaeran Musika-Ikastetxeak bere lehen prozesu traumatikoa sufritu zuen. Ordantarte Zuzendari izana zen Joaquin Puente jaunak bere postua utzi zuen Udaleko zinegotziak eta guraso-batzordeneak izandako desadostasun zenlaiketan medio. Geroztik, Musika-Ikastetxearen funtzionamendua nahian aldatu da: behin behineko zuzendari bat izendatu zen, Jose Manuel Otermin jauna —handik urtebeteara Javier Luis Inda De-nostako Handako Erregidore eta tronpeta-joleak ordezkatu zuen—. Guraso-Batzorde bat antolatu zen, Miguel Nacenta, Josune Zabaleta, Ramon Etxeberria eta Begona Arkauzek osatua eta gaur egun ere lanean tingo jarraitzen duena, eta urtean bitan biltzen den Musika-Ikastetxeko Eskola-Kontseilua eratu zen, bertan gu-

raseoek, ikasleek, irakasleek eta Udaleko zinegotziiek errepresen-tazioa dutelarik.

Zalantzarak gabe, Musika-Ikastetxeak kanpora begira egin duen lanaren ardatza Esku-Soinu Orkestra izan da. Bera izan da zenituaren eihartzuna Euskal Herriko hainbat bazterretaraino zein erdal atzerrietaraino irista-razi dusa. Esku-Soinu Orkestra 1986an sortu zen orain zuzenda-ria duen Jose Manuel Oterminen ekimenez. Sortu zenetik, Orkestra honek kontzientzlatze-lan esker-ga egin du eskusoinua kontzertu-mailara jasoz eta punta-puntako instrumentum bihurluz. Orkestra hamalika eta hemezortzi urie bitarteko gazte osatua dago eta badira bertan zenbait benetan malla oso-oso altukoak. Azpimarragarria da Orkestra honek hiri

urtetan segida (1987, 1988 eta 1989an) hartu duela parte Madriden egindako «Reina Sofía» Esku-Soinu Nazioarteko Lehiaketan, aurreko bi urtetan bigarren postua lortuz eta lauoa Lehen-dabiziko Otoratz. Lau urtetako ibilbidean maldina bat kontzertu eskaia du Orion, Donostian, La-redon, Deban, Zaragoza, eta...

Hasiera-hasieratikan, Orioko Musika-Ikastetxeok, solfeoko klaseez gain, honako musikatresnak jotzen irakatsi du: pianoa, klarineten, eskusoinua, flauta, tronpetea, bibolina eta biolonbelea. Azken ikasturte honelan berrikonta bat izan da eta kantu korala ere irakasten hasi dira. Datorren ikasturterako, berriz, balleta-klaseak emateko posibili-tatea planteatuko omen diote udalari, ba omen dago eta horre-

tarako ere zaleasunik gure herriean.

Aipagarri da, bestalde, aurten intengo direla Orioko Musika-Ikastetxetik Oinarritzko Solfeo-Ikasketa guztiak Orien egin eta Solfeoko Oinarritzko Titulua lortuko duten lehen ikasleak. Azken mailan dabiltsanak hamaizapiren bat omen dira eta irakasleen ustelan nahiko malla politikoak eta titulua pareteratzeko posibili-tate handiak dituztenak.

Matrikula-kopurua urterik urte jeitsi egin bida ere, nahiko mala altuan mantentzen da oraindik; azken ikasturte honetan, 1989-90 ikasturtean, 107 ikasle matriku-latu ziren eta matrikula-kopurua 203koa izan zen (kontutan izan behar da ikaski batzuk asignatura bat baino gehiagotan ematen duela izena); irakasleak, berriz, zazpi ibili dira kursoan zehar.

Ezin utziko dugu alpatu gabe, azkenik, Musika-Ikastetxeak gure haurrel musika-irakaskuntza euskaraz eskaia ahal izateko izan dituen eta oraindik ere dituen arazoak. Aurret lortu da, lehen aldiz, esate baterako, solfeoko klaseak euskaraz emateko galdei irakaste bat ekartzea, zeren eta orain arte klase hausek erdaraz eman bait dira. Aurret irakasle-landetan aritu diren zazpi pertsonatik hiru batzuk ez dira euskaldunak eta hau problema bilhurtzen da eskolan eta etxean euskaraz ari diren hainbat eta hainbat haurri eduki teoriko zein praktikoak azaltzerakoan. Arazoak ez du, ordea, korionbide errazik, ez bait dago egen, itxuraz, irakasle euskaldun tituludun nahiko dauden premiel erantzu-teko.

Oztopoak oztopo eta mugak mugak, ferro hauetan eskribitzeko informazioa eman digun Miguel Nacenta Guraso-Batzordekoia itxaropenetu agertzen da Musika-Eskolaren geroa eta komen-tzimendu osoz adierazten du eskolak surerra egingo duela eta ez dela hau izango Orion —ario guz-tietan, bai, baina baita musikaren eze— matz ikusi izan du-gun jaiotza azkarreko eta heriotza azkarragoko fenomeno horietako bat gehiago.

Jabier Zabaleta



Orioko trikitilariet buruz zertxobait esateko asmotan, beraletako batzuei galderatxo hauak egin dizkiegu. Asier Gozategi eta Ainhoa Gozategi ditugu lehenik.

Nola hasi zineten trikitixa jotzen?

Ni (Asier), trikitixa ikasten ez nintzen hasi alsegin nuelako. Garai hartan ez zen gaur egun adina trikitilari eta ez nuen trikitixa ezagutzen. Ia bederaiztzi urte nintuen soinua jotzen ikasten hasi nintzen. Nire ikasketak hasiko arrazoia, nire aita izan zen. (Ainhoa) Gure aitak beti izan du gustoko trikitixa balina ez zuen ikasteko aukerarik izan. 1981eko Urtaurrean hasi zen Asier trikitixa ikasten. Ni berriz, Asierrei panderrista bezala lagundu nahian hasi nintzen. Hasieran gure lehengusua Oihana Abaurrea zen bere

laguntzailea, baina utzi egin behar izan zuen eta orduan ni hasi nintzen. (Asier) Nik ez dut uste trikitilari izaten jarraituko nuenik nire altzagatik izan ez balitz.

Orioko musika giroaz galdeku diegunean ondoko hau erantzun digute: Alor horretan ez dugu beste herrien bekaitzik. Arro senti gaitezkela uste dugu. Instrumentu barrietate handia dago, baina hori ez da nahikoa. Elkarren arteko loturak edo harremannak oso murriztak dira. Orion jendeak musikarekiko interesa handia du, baina uste dugu musikarako gogoa dela falta dena.

Trikitixan beste gauzeta bezala, ikasi eta ikasi eta ez duzu inoiz bukatzen. Orain ez dugu irakaslerik balina irratian edo edonon entzundako musika desberdinak ikasten salatzen gara. Bestalde, dio Asierrek, ni orain irakasle bezala nago Orion, Alain eta baita Arbizun (Nafarroa) ere.

•Ni baino aberatsago ez dago inor, hitz hauekin laburbildu zigun hogei tabat urtetako Jose Antoniok trikitixaz galdeku genionean.

Hamairu urte betetzean zegoela, bere altaren desioa zen semea trikitixan aritzea. Hasiera batean gogoko ez bazuen ere Jose Antoniok denboraren poderioz «Txanturiko» geratu zen, Asier Gozategi eta beste trikitilarien ekitaldiak ikustean,

Duela bost urte, Euskadiko Txapelketara aurkeztu zen Imanol Urkizurekin, bigarrenak suertatu zirelarik. Honen ondorio bat bezala, bidaiak egiteko aukera elorri zitzalen eskuetara; batetik Argentinan izan ziren eta bestetik Ipar Ameriketan, Kalifornian hain zuzen ere.

Gaur egun, bere lanbidea trikitixa da, herri ezberdinako haurrei irakatsiaz. Honezaz gain, udara aldean erromeriz-erromeri eta urtean zehar ezkontza batzuetan trikitixa joaz ibiltzen da.

Trikitilari hauen eritzia jaso ondoren hauxe esango genieke besteei ere: «Aurrera segi ezazule, ez egin inoiz atzeruntz. Mundu izugarri baten barnean sartzea lortu baita duzute. ZORIONAK».

Miren Etxeberria
Marisa Arruabarrena





luzoko hiaiak. Baia hau itikia bozen, eskuz erabilteko modukoa, gehienean sakona izaten zen, burrunzali artxekoa, alabre-sareaz egina eta jirako uztaia altzairu biribilezkoa. Baina diametroa laurogei zentimetro ingurukoa gehienean. Baina alian eramaten zena bi metro inguruko diametrokoak izan ohi zen, kertena, berriz, hogei oin baino gehiagokoa (gatako neurriak dabiliket, oin batetik hogei tamari zentimetro inguru zuen).

Bi hagalez osatutako "pondoa" ere eramaten genituen. Hauek, muturrean zama haundi bat zutela, uretara hota, bat ala aurrean eta bestea atzean, eta goiko muturra ontzari lotzen genizan. Hauetaz gain, beste hagai bat eramaten genuen, polio egurra deitzten zena, muturrean txirrikia (polea) zeramana izaten zen, baita ere, zurezko eska bat, goian sare larrizko estalki gisakoaz. Hiaiak zelarrik zikin, ikusia eta gainontzekoak bereizteko eta aska barnura txitxardinak besterik joan ez zitezen.

Kalatzeko, hemiz, behin uretan kokatuz gero, lotzen zitzaion soka-muturra baiti beheko barrenean eta txirrikan pasa ondoren zetorren makina deitutako fresna batera. Makina

hau danbor bat zen eta hemen bigarren lagunak biltzen zuen soka hori lehenengo gizonak zekorkien bitartean. Lehenago aipatutako pola-egurraren bitartez kala hizcogua egitea lortzen zen. Behin kala eginda gero, farolean ikusi zenbat txitxardin-ale zetozan eta askara itzuli lehenago esan dudan bezala gaineko sare larrian gelditzen zirela zakar edo beste zikinkeria; txitxardinak, berriz, zakor tartearen behera erauz txirristatzen zitzen. Askotan honek urak joan zitezzen txafia bat zuen zulo trikiez betea; noska, zulo hauek oso itikia behar zuten izan bestela txitxardinak ere joango zirelako.

Egundoko ikuskizuna izaten zen ur gaiean hainbeste argi inguratzen zirenean, batik bat lehorretik begiratuta. Ur aldia hasten zenean atera ohi ginen, ilunarekin batean, —garai hasieran eguzki-ordua bizitzan bait ginen—. Ontzi edo ala horiek mareo behera alegoricean lokatz gaiean gelditzen ziren eta "botadura" bezala, bi edo hiru zera eman ondoren, sartzen ginen barnura eta txirristaka joan ala barruan uretaraino. Gero, benetako estropadak sortzen ziren txitxardinei jarrera. Behin pondoaldi batean txitxardinak igaro zirela

nabatiz gero, jaso tresna guztioi ala barrura eta bat bolinean atzean eta bestea denak emanda arraunean garago toku berria hartzera inor baino lehenago.

Era honetan, gau askotan sei zapta pondoaldi eginaz eta, marea biziak zirenean, Aginagako Zubiraino joanaz aritzen ginen gero gauetan etxera bihurtuz.

Hurrengo goizean arkupetara nork txitxardin gehien zekarrikien ikuslera eta hile batez "subastan" zer salneuri egiten zuen jikitera.

Geroago, Aginagako txitxardin-erosleak beste ilurri batzuk bilatu zituzten eta beste herrialdetatik hasi ziren txitxardinak elkartzen, nahiz Frantziatik eta, baita ere, Afrikatik.

Txitxardinen prezioak ere, nork sinnistu ordukoak gaurkoak entzun ondoren!, benetan parrafiariak gaurkoarekin parekatuz.

Aurrerago sortu zen "artasle" bidezko sistema eta hau aberatuagoa izanik, teknika honetara erori behar izan zuten arrantzaleek. Hauek sortu ondoren, baserreko arrantzale giroa ia dena galdu zen.

DANETIK PISKA BAT



PARKE BERRIA

Denborarik ere ez du izan bere oinarriak ondo finkatzeko Orioko parke berriak. Lehenengo momentutik jasan behar izan du neska-mutikoen eraso etengabea. Festa izan da guzilentzat eta ez bakarrik txikientzat. Izan dugun eguraldiarekin parkea eta bere inguruak jendez gainetza agertu dira egunero, honi lagundu dio lekua haizearen babesean geratzen dela eta eguzkia berandu arte izaten duela.

Akats txik bat; iturriek ez da goela, eta jakina, hainbeste joan- etori, gora eta behera, korrika eta biziaketa, izarditu eta egarritu egiten dira parkearen bezeroak. Berehala zuzenduko dutelakoan gaude.

Garala zen. Orioko haurrek badute eskatzen eta behar zuten jolas toki ederra.

EMAKUME TALDEA

Orioko Emakume Taldea, eskuadako beste zenbait herrian hasitako dinamikari jarraituz, firma-bilizten aritu da herrian Urola-Kosta eskualderako Osasun Zentro bat jar dezaten eskatuz. Eskualdeko herri guztiei bere zerbitzuak eskainiko litziokeen Zentro hau Zarautzen kokatuko litzateke eta dohalnekoa izango litzateke. Zentro honetan zerbitzu ginekologikoa eskainiko litzateke

eta izan beharko luke, balita ere, matrona bat, Gizarte-Laguntzaile bat eta sexologo bat herritarren demandak atenditzeko. Ixura denez, gure eskuadalen da Gipuzkoa osoan honelako zentro bat ez duen bakarra eta implikatutako herri guztietan mugimendu indartsua ari da eratzen. Osakidezak gurean ere sortu dezan. Asunto honek, segurueneik, ekarriko du gerora ere zer komentatu eta izango da, noski, honetaz KARKARAn patxada gehiagoz jar-duteko aukera.

EUSKARAZKO EGUNKARIA

Uztailaren 5ean egingo da Orioko plazaren inguruan euskarazko egunkariaren aldeko festa. Bada hilabete bat herriko zenbait euskalitzale euskararen antolatzen aridela, propaganda lortzen, bono eta partizipazio saltzen, kuestioak egiten, egun horretako festa listotzen, etab. Uztailaren 5eko ospakizun berezi horretan egunkari zuri erraldoi bat iritsiko da herriko plazara eta honen inguruan antolatuko da egun horretako festa. Egunkariaren orri zuriak batzordeak hilabeteko lanean lortutako herriko dendari, tabernari eta enpresarien propagandaz eta herriko elkarteeen berriez beteko dira, bitartean zenbait ikuskizun eta ekintza izango delarik.

Egun horretako festarekin emango zalo amalera Orion «Egunkaria Sortzen» talde eragileak bultzatu duen eta udazken aldera kalean izango den euskarazko egunkariaren aldeko kanpalina honi. Gogoan izan, balita ere, nazio-mailako kanpalina uztailaren 15ean bukatuko dela eta azken ekitaldia, hau ere festa-giroan ospatuko denea. Donostian izango dela.

TANBORRADARIK EZ

Aurtengoan makal ibili dira Balea Elkarteko kideak, ohizko maiztaren erdi aldeko kultur astea antolatzeko gauza ez izateaz gain, ez bait dira kapaz izan urtero Soziedadeko afariaren egunean egin izan duten tanborradarako entzaloak egiteko nahiko jende osatzeko. Maiztaren 14aren inguruaren beste urtetan antolatu izan duten kultur astea, aurtengoan ekitaldi bakarrera mugatu da: Joseba Egibarrek Tailandia eta Sumatrari buruzko diapositiba emanaldia eskaini zuen maiztaren 11n. Zer esanik ez, Josetxoren emanaldien berri dutenek badiak hori, ekintza bakar hau interesgarri eta ikusgarri oso egin zitzaien bertara arrimatu zirenei.

HEGAZ ALDIZKARIA

Zaragueta ikastetxeko ikasleek HEGAZ euskal aldizkariaren 4. alea kaleratu zuten Joan den Apirilean. Azkeneko zenbaki honeitan, eskolako hainbat gairen berri emateaz gain, bixiguarren inguruko datu, errezeta etabar, parke berrien planoak, emakumearen eguna eta beste gai interesgarri gehiago jasotzen dira. Aurrekoetan txukun jardun badira azken ale hau askoz osatugoa ateraturik, bai itxuraz, bai marmiaz.

KUKUARRI EGUNA

Ohi bezela, maiztaren azken igandean Kukuarri eguna ospatu zen. Eguna lainotsua izan bazen ere alaitasuna zen nagusi berraratuz ziren guztien artean. Aurten omenaldi apal bat eskeini zioten mendizale talde hau sortu zentik, orain dela hogei bat urte, el-

DANETIK PISKA BAT

kartearen partaide izaten segitzen duen mendizale bakarrari. Patxi Oliden langile porrokatua. Bera ez da oso omenaldi zalea eta gauza tsilpean eraman zuten egun horretara arte.

Egindako lan guztia eskertzeko orioigarri bat eman zioten, Eusebio Lasartek egindako bertsot bat zeukan, eta mutil koskor batek beste bertsot batzuk kantatu zizkion, adieraziz neska-mutil koskorren artean lagun asko dituela.

MUNDUARI BUELTA EMATERA

Datorren urrian edo azaroan Getarietik belauntzi bat abiatuko da munduari buelta osoa emateko asmoan. «Elcano 90 Espedizioa» da abentura honen izena, Juan Sebastian Elcano getariarrak 1522 urtean burututako hazainaren orioigarri.

Elcano eta bere gizonek hiru urte eman bazituzten munduari buelta ematen, espedizio honek 186 egunetan berriz Celarain egon nahi du, San Lúcar de Barrameda, Tenerife, Buenos Aires, Punta Arenas, Valparaíso, Manila, Brunel eta Yakartan lehorreteratua eta 32.191 millako itsas-bidala egin ondoren.

Gazte asko dira bidai honetan parte hartzeako asmoa adierazi dutenak eta hauen artean bi oriorrak aurkitzen dira, Serafin Onaindia eta Rafa G. de Txabarri. Espediziolarako 90 marinak behar dira eta beraz nolabaiteko aukeraketa bat egin beharrean daude. Ea suertea duten bi abenturazale gazte hauek.



ARRAUNA-ESTROPADAK

Orioko Arraun Elkartea sortu zenetik 25. urteurrena ospatzeko dugu auren, baina zoritzarrez ez da izan ospakizunak merrezi zuen nazioarteko estropada. Asmoa bazegoen eta ekainaren 9a zen estropada horretarako aukeratuta-

arraunlaririk onena, kriteria ergometroan egindako marka baldin bada behintzat, izan ere Ibon omen da orain arte 5.000tik gora egin duen arraunari bakarra. Galiziar batekin ari da entrenatzeko joia ke 2 + ontzian eta Ixaropena dago zerbaite handia egiteko Barcelona 92an.

Traineruetara begira esan



ko eguna. Oxford eta Cambridgeko mutilentzat garai txarra da hortazterketengatik eta Italiako zenbait klubekin hitzeginda zeuden. Munduko lau eskiplista onenak ere etortzekotan ziren. Baina azkenean ez da posible izan. Arrazola askotan bezela zorioneke diru, edo hobeto esan diru falta.

Diru iturrik seguru eta importanteena telebistak ematen duen da eta ez ETBk ez TVEk ez zuten onartu estropada hauetako erremittitzaea, eta gabe geratuta gara ez baitzen posible presupuestatutako 5 milioitak lortzea.

Banco mobileko denboraldiaz eta Oriori dagokionean esan behar da norbait nabarmendu baldin bada besteak gainetik Miguel Angel Altzerri eta Asier Esnal jubenilek osatutako 2-lemazainik gabeko biloa izan dela. Senior-tako zortzikoak berriz gorabehera handiak izan ditu, estropada batean beste guztien aurrekik iristetik, beste batean seigarren sartzera pasa izan dira.

Olinpiadetarako prestatzen ari den Ibon Urbieta oriotarra omen da oraintxe bertan Estaduko

behar da 22 arraunlarik osatutako taldea dagoela eta horietatik batzuk trainerilla batean dabilizala ekainaren 9z geroztik. Trainerilla aipatu dugunez ezin utzi esan gabe Jose Luis Kortak berriz irabazi duela Espanako Txapelketa, oraingo honetan Zierbanako trainerillan. Korta ez da zahartzen nonbait.

Oriok lehenengo estropada Astilleron izango du uztailaren 23an. Pasaiako estropadarako ere konbidatuta daude, uztailaren 31rako eta Orioko berriz abuztuaren 18an izango da. Lehengo urtean baino egurakdi hobeak izango ahal dugu! Ea txaranga entzuteko modua daukagun berriz aurtengo udan.

ORION ENLATATUTAKO JANARIAK EVERESTERA

Uztaila basierako egunetan munduko mendirik altuenera joango diren euskal mendizaleetako batzuk Orion izan ziren maiatzaren bukaera aldean. Espedizio horretarako janaria pres-

DANETIK PISKAT BAT

tatzeko asmoan etorri ziren eta Conservas Azkue lantegian eta Bales elkartean aritu ziren haragi egosia, makarrolak, txipiroiak, izokiak eta, potetan sarzten, ia 100 kiloko fardela osatu arte.

Euskaldunak bigarren aldiz iristen baldin bagara munduko tontorrak altuenera neurri handi batean Orion egindako lanaren egokitasunaren arabera izango da, ez baita txikia izango holako ibilaldi batean janariak daukan garrantzia.

Kantauriko Kampeoiak bihurtuz.

Ez dakigu benetan edo txantxetan den baina bere hurrengo asmoa Rio de Janeiroko joatea da hango futbolari plaiero sanberoen kontra jokatzen.

Argazkian goitik eta ezkerretik hasita: Juan Antonio, Pelio, Iñaki, Jose Mari, Luxio, Gotzon, Juan Angel, Rafa, Jabi, mutill koskor bat, Segu, Patxerrikondo, Akaña, Iñigo, Axokalte eta Agustin, finala irabazi zuten egunean.



ZARAUZKO PLAIEROAK

Conervas Azkueko Futbolari plaiero gazteek jarritako marka ez da ez txantxetako. Azken lau urteotan hiru aldiz irabazi dute Zarauzko hondartzako futbol txapelketak.

Conervas Azkue izan zen apirilaren 22an jokatutako finaletara iritsi zen ekipu oriotar bakarra. Hauek, senior mailan, errez nagusitu zitzalizkien zarauzarrei 2-0 eta kopa ikaragarri handi bat ten jabe egin ziren merezimendu osoz.

Ekainaren 10ean berriz, Gijonen jokatzen den plaieroetako txapeldunen kontra jokatu zuten. Zarauzko hondartzan orain ere, eta 5-2 irabazi zieten, era honetan



SASKI-BALOIA

Benetan txalotzeoa, hamabi eta hamalru urtetako oriotar neskatzen lorpena; bi urte jarraian Gipuzkoako Infantil Txapelketa eskuratu bait du.

Ekipoko partaideak honako hauek dira:

Hanne eta Guadalupe Bourras, Nuria Rodriguez, Laura Garnateo, Maider Gama, Nekane Martin, Shora Shaddik, Jone Olaskoaga, Yolanda Frias, Nerea Garrido, Belen Casado, Rut Etxeberria, eta Jeanete Moreno.

Semifinala: Zaraguetak 47
Axularrek 18

Finala: Zaraguetak 57
Lizeo Sto. Tomasek 37

Begibistan dugu emaitza guztiz baikorra izan zutela.

Kadete mailako neskek berriz lehenengo mailara igotzen lortu dute aurten. Nesken saskibaloia harrobi ederra izaten segitzen du Orion, eta horretan dihardutenean entrenatzaleek zerikusia izango dute noski.

Esan beharra dago bestalde kadete mailako neskatsek lehen mailara igotzea lortu dutela aurten. Eladio Zubizarreta eta Joakin Aranburu entrenatzalee nekaezinen laguntzarekin.

BERTSOAK

KONTRABANDOARENAK

1.

Bazen herri txiki bat
erdi-arraunlari
keinu egin ziona
kontrabandoari
hasieran izan zen
batzuentzat sari
gero ekarri zuen
problema ugari.

2.

Nola laguntzatxo bat
behar zen jateko
hain gauza txarra zenik
ez zuten usteko
hasieran izan zen
juxtu mantentzeko
orain asko dutenak
gehio gizentzeo.

3.

Auskalo ze jeneroz
bete ontzikada
eta auskalo noren
eskuetan laga
nahiz ta holentzat ona
izan beharbada
diru erreza beti
diru ustela da.

4.

Diru ustelak dande
herrira helduak
eta gero gauzetaan
garbi azalduak
nahiz ta ganbaran danak
ez dauden galduak
danak usteltzen ditu
sagar ustelduak.

5.

Holako ta holakok
egin du txaleta
kotxe ederra eta
larruzko txiketa
horrek arrisku latza
badauka gordeta
gazteentzako bide
errexa da eta

6.

Zeozer dabilzala
antzemandakoak
azkar gizendu dira
ez daude flakoak
ta askoren galderak
dira holakoak:
horrenbeste ematen
al du tabakoak?

7.

Poliziak ez dira
kontra jartzen gogor
aitorzen ez dutena
ez ote dago hor?
baina beste jende bat
ez dago horren gor
«zerbitz» gertatzen badu
ez harritu inor.

8.

Dirudun asko dago
herri hontan zehar
gainera raza hori
ez dago galiztar
gazteak ohartuko
ote dira bihar
herri baten ez dela
aberatsik behar.

9.

Gaur batzuek mokadu
ederra daukate
baina luzarorako
herrirako kalte
nik behintzat ez dut inoiz
dirudunik maite
gizendu daitezela
herritik aparte.

10.

Hementxe bukatzen da
nire istoria
somatutakoa da
ez da teoria
plaiaren jar ezazue
bandera horria
berdea aspaldian
dago eroria.

Jon Sarasua




ORIO BERE ARGAZILARIEK IKUSITA

RAMIRO GARCIA

El Maderal (Zamora) herrian jaio zen 1927ko uztailaren 15ean, 1949an Oriola etorri zen eta korreo bidez ikastaro bat hasi zuen Arin eta Embilén lanean ari zen bitartean, Donostiaraino joanez egunero Bersan etxean praktikak egitera. 1955an jarri zen argazkilari bezela lanean Orion.


Atsegintasun osoz eskeini digu bere laguntza sail berri honi hasiera emateko. Egia esan oso zaita jarri digu asuntoa guk aukeratzeko argazktak esan digunean, bere artxiboko kajoia gainezka bait dago.

Hemen agertzen direnak muestra txiki bat besterik ez dira. Orioko txokoak, Orioko jendea, beraien lana, jaiak.... pasa dira urte hauetan Ramiroren kamara aurretik, eta berak hau dena gordetzen jakin du guretzako, oriotaurrentzako, ondo adieraziz esaten duena egia dela, alegia, Orio, bihotzean daramala.









ELKARRIZKETA

BENITO UXKUN

Uxkun kastako zortzi senideko gazteena den Benito Lertxundi bere jaloterrico Goiko Kaleko etxebatean bizi da eta han hartu gintuen maiatzak bukaerako gau euritsubatean, eta la lau orduko solasaldi luze bezain interesgarri eta atsegina izan genuen. Orioko barra, hondartzak, itsasoa eta mendia ikus zitezkeen liburuz eta diskaz betetako bere etxeko egongelan, gauak eskeintzen zigun isiltasun eta lasaitasunaren laguntzaz, patxada ederrean.

Solasaldi haren fruitua da ondorenengo elkarrizketa:

Karkara: Nolatan abiatu hintzan hi musika munduan?

Benito: Gure etxean beti izan dek kantatzeko joera eta doala. Guztizat eguberriak mundialak izaten hituan, familia handia gintuan eta ondokoak ere etorzen hituan, Rufino, Miralles, etab. eta gaupasa egiten genian denok kantari. Esan behar diat baita ere gure jostaketa lekua Goiko Kalea zala eta gerò eliza ingurua. han ibilten gintuan beti, han jokatzen genian pelotan, gerran, kuskumekoka eta honek badik nere izakeran zerikusia. Elizak beti izan diki misterio bat neretzat. Jolasen art ginala bapatean Bach entzutea batenbat organoa jotzen ari zalako han elizan, ba horrek bazitxekan neretzat holako erakarpen bat. Eskolarekin sekulako eragozpenak nizkian, ez nian kozkorrorik ere ulertzen, abersioa nitxeon eskolari. Dotrina ere hage-nian 11 1/2tan, askotan piper egin, etxean aguro baziak eta elizara joaten ninduan. Martin Lizaso joaten huan hara ordubata terdiak aldean. Nik kontrolatua nitxekan baina lotsa izaten nian elizan sartzeke, batenbatek ikusiko ole ninduan, gero han egolen ninduan 20 minuto edo organoa entzuten. Beste mutut koskor guztiak kanpoan egoten hituan banderan jolasten eta ni ixilik joaten ninduan, ez nitxeon inori esaten. Hura nonbait emea huan, multzari ez ziohakiona. Gero Martinekin koroan hasi ninduan kantari, gero otroxean. Bera izan huan baita ere instrumentu bat nere eskuetan jarri zuena lehenengo aldiz, bandurria bat. Hari atera nitxekan nik lehenengo doinuak.



Gero kitarra bat erosil nian, elektrikoa izan huan nere aurreneko kitarra.

Martin hor zegok beti nere haurtzaroan.

Karkara: Donostian kantu lehiaketa bat irabazi eta Labea, Iriondo eta beste hainbatetkin batera hasi hintzan kantatzan, talde hari izeana «ez dok hamairu» beste oriotar batek eman zitzetan, Jorge Oteizak, hik ezagutzen huan Jorge lehendik?

B.L.: Aditzaera bal, haren kontu batzuk jakin ere bal, jendeak esaten zuena, erotuta zegoela, etxe bat eraiki nahi zuela ostraera gainean, bere andrea ikaratzeko saltu egiten zuela uretara «banoa banoa» esanaz, holako kontuak. Baina ezagulu Irungo jaioldi batetan ezagutu nian, orduantxe hasiak gintuan elkarrekin kantatzan eta han ikust nian gelditu gabe zebilen Jenio Itxurako gizon bat, batetik bestera eta erakarri egin ninduan segituan, nik ez nitxekin zein zan, elektrizista edo ote zan pentzatu nian. Kantatzeko nere txanda egokitu zanean nere aukerpena egin ziten «Orioko mutut bat» eta kantatzan bukatu nuenan han non agertzen zaidan

gaidetzka: —hi Orioko al haiz?— eta «ba ni ere bal, ni Jorge Oteiza nauk», orduantxe lotu nizkian surrean neukan Jenio Itxurako gizona eta Orion enlizundako eroberria halen protagonista. Txokolate eta Sarasua arraunari zaharrak eta ezagutzen nituen galdezu zitxian orduan, gerora konfuratua nauk ni, Arantzazuko bere apostolu batzuk egiteko gizon hauetan omarritu zala. Ikaragarri mires-tentzizkian arraunartak, Geroztik askotan izan nauk berarekin. Gogoratzen nauk Arin y Embil eneko etxean egolei zala «Ejercicios espirituales en un túnel» ifazten ari za garaiaren eta nik askotan egiten nitxeon bisita. Arratsalde osotak ematen nizkian berriketan harekin. Behin leihora atera eta honela hasi zitzaidian —ikusten al dituk gurutze guzti horiek, ikusten al dituk?— nik ez nian gurutzerik ikusten inon eta berak —bal han, teilituetan dauden antena guzti horiek dituk-gure gurutzeak. Madrileko kaka guzia gure sukaldetara lsurtzen dutenak». Sumendi bat huan gizon hau. Kontraesanak pilo bat dizkik, baina Jeniala dek. Oteizak euskal gizona eta euskal arima aztertu dizkik eta

esaten dik bidean gauza asko galdu ditugula eta hitzuntza bera galtzea galbide prozesu horren azken pausua izango dala eta arima galtzearen ondorioa, euskera harren usietan izate baten ondorioa dek, eta hura galtzearekin galduko dek bestea ere, beraz hura dek errekuperatu beharrekoa. Praktikotasun hotz batean sartu gaituk eta hitzuntza bihurtu dek adierazteko kode huts bat. Berantuztak askoz sakratuagoa dek. Oteizaren iraultza hortik zlak, hori dek bere diskurtsoa. Horretarako proiektu asko egin dizkik eta berak uste zian botere politiko administratibo bat berreskura-zearekin batera gauzatu litekeela bere iraultza kulturala eta hori ez dek horrela gertatu. Jaurlaritzak eta erakundeek beste lehentasun batzuk izan dizkitek eta hortik ztorrek bere baztertzea.

Karkara: Azter ditzagun hiru kantak piska bat. Aurrenetako batean zera esaten huen:

•zer egin degu, ezer ez
•zer egiten degu, alkar jo
•zer egingo degu alkar hil

Aurreikusi egin al huan elorkizuna?

B.L.: Gure herria oso banderizoa izan dek, beti alkar joka ibili gaituk. Helburu nagusiak berdinak dizkiagu denok, balina gero garrantzia formei ematen zleagu, nerea beti dek hobea, zuzenagoa, jatorragoa, aurrerakoagoa, eta hor gelditzen gaituk. Gainera zoritzarrez historia errepikatu egiten dek beti, eta gizonok zorigaitz horretarako joera izaten dia-gu.

Karkara: Garai hartan metafora erabilizten zenuten. Askatasunaz hitzegiteko mendiko loretxoari eta begira zegokion multitxori kantatu hien. Beharbada gauzak ezin zirelako zuzenean esan?

B.L.: Alde batetik egia dek ordungo errejimen politikoa eta zentsura gehiago fijatzen zirala hitzetan, irudietan eta esanahilean balio. Libre izan bagenu dana esatea, nola esango genuen? ba ez zekiat, agian bi eratara, askotan gauzak zuzenegi esateak ez dik misteriorik, oso aspergarrila dek eta kanta berehala agortzen dek.

Karkara: Hik izan hiluen gorabehera baizuk entzulegoarekin hori zala eta ezta? Alegia ez hituela

esaten halek entzun nahi zituztenak?

B.L.: Bai hori dek, betiko jarrera sasi-radikal horiek. Herri honetan ez dek sekula benetako biolentzia politiko koerenterik egon eta horren ezean sasi-biolentziak sortu dituk. Orduan konturak hori eskatzen zian, munduan zehar protestaren garaila huan eta gure herriak ere halako egoera bizi zian eta hasi glnuan protesta egiten, baina garai hartan deskubritu nizkian baita ere euskal poesia klasikoa eta kantutegi zaharra eta hor harrobi bat ikusi nian eta mundu bat zegoela jorratzeko eta horrelan abiatu ninduan eta topo egin nian giro batekin, polizioz eta kartzelaz eta hitzegiteko behartu nahi ninduena. Nik esan nian «edo alzeraka joiten dei ez dakit zeren izanean txalo merke batzuren truke edo nere horretan segitu eta txistuak jaso», eta beno aro bat izan huan, zorionez ez oso luzea, ba ni agertu orduko jendea txistuka hasten zana. Bolada hartan modan jarri huan pospoloak plantearena, betiko zirkuitoa korritu ondoren elorri zana, lehenengo Amerikan, gero Catalunya, gero honera. Ba guztientzat pospoloak izaten hituan, ni agertu eta txistuak. Kantatu egin nahi eta ezin. Baina intuizioa izan nian, hau ez dek urrutira joango, ez zeukak urruñira joasterik, jalo orduko agortuko dek, ez dik eta oinarririk,

eta horrek iraunara zidan bestela ez huan posible segitza, hura ikaragarria huan.

Karkara: Hik Euskal Herriari kantatu diok batez ere, baina beste herri batzuk ere izan dituk kantagai, Irlanda, Breaña, Harleengo beltzak etab. Zer izan da zapaldutakoengana elkartasun joera bat?

B.L.: Elkartasun hitza gaizki ulertua izaten dek. Garai batean Vietnam izan huan munduko elkartasun guztien helburu eta hemengo sast iraultzaile guztiak, nolabait ere gure arazoak estalizko, Vietnamesekin solidarizatzen hiluan, imperialista estandartea amerikarrei pasatzen zitxoten, beralek imperialistak ez baldira bezala. Guk garbi agertzen genian hemengo yankiak halek zirala, opresoreak zirala eta Vietnamdarren benetako solidarioak gu ginala, gu ginaia vietnamdarrek hemen, gu geundela getoan eta solidarizatzeko modu bakarra imperialismoaren hatzparretatik asatzeko borroka egitea zala.

Karkara: Zergatik Zuberoarekin hiru ilura hori?

B.L.: Nik Zuberoarekin topo-lehengo aldiz afari batean egin nian. Bat ari huan Zuberoa gora eta Zuberoa behera eta ikaragarrizko misterioa sorta zitxian. Nerezat gauza exotikoa huan, eta esan nian «ezagutu behar diat ba Zuberoa». Eta uztaldeko egun batean,



Goiain eskuiblan, Orioko plazan lehen jaunartze egunean

nere •600-a hartu eta han ablatzen nauk Zubero aldera. Beldur pixka bat bantian, halako grina sartu zitzaidan nere baitan, halako misterio bat, pentasaten nian harekin topo egindakoan, askotan gertatzen dan bezala, desilusioa izango nuela. Balira gauzak oso bestela gertatu zitzalzkidan, afarian sortutako lilura hura handitu egin huan, maitemindu egin ninduan Zuberoaz. Ostatu guztia galinezka ziztauden eta han bizi zan Iruñako emakume batek eman zitxian azkenean tokitxo bat ganbara batean eta han eman nizkian 15 egun. Haletako egun batean Ori mendian goraka nindoa, tensio batean, hango giro hura dana ausnartu nahian, halako batean zurezko ahots izkutuko bat entzuten hasi ninduan, han nonbailetan lanean egongo zan laborartren batena eta zirrara ikaragarria sortu zitzian. Ezagutu nian Napoleon deitzen zioten bat behin haren papera bete zuelako pastoral batean, Santa Garaziko Ziberu deitzen zioten kantari mitiko bat eta horiek danekin ezin kontatuzko bibentziak sentitu nizkian. Beste batean Urbeltzkin nengoela pisanean ari zan 17 urteko mutill batek egin zizkian dantza pausu batzuk eta esan zian Urbeltzak «baina zer diki herri honek, ateratzen zailok dantza, baileko pausurik artistikoena, horrela natural, konturatua gabe, malkoak bezala». Arrazaren herentzia soinean eramatea oraindik XX. mendean, herri murriztua, pobretua, ia bere gazte guztia emigratzen behartzearaino, 14.000 biztanle izatera jeitsi dana eta oraindik bizirik dizidik pastoralak, maskaradak, horren azpi guztia ikusten dek, lotura atabiko guztia horiek eta galdezen dek zer du herri honek.

Beste batean Laboarekin Parisera kantatzera joan eta gauean ikasle euskaldun batzurekin geundela etorri hituan neska zuberotar batzuk, Parisen prostituta zirenak, kantatzen hasti ninduan •Maria Xoxi eta Kastero• eta metropoli urbano gordin hartako prostituta halek oihuka hasi hituan •Etxaun, Etxaun•. Hik badakik zer dan hori? Ikaragarria, Oilo ipurdia jarri zitzaidan. Zer diki herri honek. Esaten dek zuberotar



bat bizi dan artean herri hau bizi dek seguru. Pariseko auxo latineko ostatu batean dagoen neska prostituitako bat eta •Etxaun, oihuka, XVII. mendeko bardo baserritar hura gogoan. Zer lotura atabikoak. (Momentu honetan Benito emozionatuta zegoen)

Niretzat Zuberoa topaketa bat izan huan. Maitemindu egin ninduan. Nik zuberoarekin amodia egin nian.

Karkara: Bertso batzuk musikatu hituan •Amerikara noa nere borondatez, aspertuxea nago hemengo izatez eta hi berriz hemen Orion, Aukera bat izan al da hemen bizi?»

B.L.: Ez, hemen jaio nauk, hemen ohitu, eta hemen bizi nauk. Nire inguruarekin nahiko itsatsia sentitzen nauk eta ez diat beharrak hona edo hara joateko, eta



gero eta gutxiago galnera. Hemen zeukat nere unibertsio txikia. Bada joera kultural bat, kanpora begira jartzen gaituena ikasteko eta hori gezurra dek, baina seguru eh! Tontoa joaten dana tontoa itzultzen dek.

Bazegok gauza bat nik intuizioz somatu izan dedana eta orain zientziak baileztatzen duena •gauza batetan atal bakoltzean dana dago• harkaitzak handienetik hartzen dek apur bat, ikertzen dek eta agertzen dituk unibertsoko datu guztia. Ez dek handia edo txikia izatea. Han zegok dana. Hau ikusien dakiak mundu guztia ikusuen diki. Eta hau batere zalanizarik gabe, oso garbi zeukat aspalditxo hontan. Hemengo pertsona batekin kutsatu gabeko harreman zuzen eta jator bat lortu dekenean unibertsio guztia erakusten dek, eta hau ez dek metafora edo bitxikeria filosofikoa, hau holika dek, hau sentitu egin behar diki.

Karkara: Aurreko alean beste elkarritzketatu batek hau esan zitxigun •gaurko gizarteak diriari ematen dio garrantzia ez kultura. Zer diok hik?

B.L.: Dirua ere kultura dek, gerra ere bat. Zergatik dauzka ba kulturak hain konnotazio onak, zer ez da kultura? Gerra ez al da kultura?, begira zenbat liburu dauzen eta zenbat gauza sortu diran gerraren inguruan. Kulturak konnotazio sakratu bat hartu duenez juizio bat egiten diagu, eta orduan kultura dek hizkuntza,

Iaztea, hitzaldi bat etab., baina cultura dek dana, gizonak egiten lituen ekintza guztiek. Bainaz azter dezagun lasai zer ulertzen dan culturaz. Adibide bat jarriko diat: jauza bat onartu degunean on ezala zer egiten degu, alde jarren gaituk eta gure portacera narike automatikoa dek, gehiago segiratu gabe, kuerda eman diagu ta sentimendu handirik sortzen z badik ere, hontan isurtzen dizagu gure simpatiak eta kitio, portacera hori kultura al da? ba ez, ainera allenantea eta txarra dek.

Kultura dek une guziletan ernal gopeareen ondorio bat. Eta ikusca ez dek juztio bat egitea, gauzak jartzeara dek. Lozorroan dagoen pertsonak gauzak mekanikoki giten dizkik, lehen ikasi zian gauzak nolakoak diran, arausak litzkik, eta gero urtetan jarrera hori zeukak, eta ez zegok ikerketan bere pentsamentua nola funtzionalzen duen jakiteko. Bazezok beste uste oker bat, batzuk pentsalariak dituk eta besteak ekintza zaleak. Bainaz jaunak, nork ez du pentsatzen, denok ari gaituk pentsatzen, ekintzak berez eskatzen dek pentsamentua. Bainaz hain sakona ole da pentsamentua, Dotrina guztiak zeukatek sentsamentua gauza sakratutzat. Bainaz pentsamentua ondorio xar asko zekarkiguk. Zergatik menperatu behar gaitu pentsamenduak. Ez ole da ikertzea eta uestionatzeko gauza izango? Gizonak etendura bat sufritu dek eta hori izan dek pentsatzen hasi daiko eta honela gauzak interpretatzen dituelako. Elenduraren indoren gizonak ikurrak behar litzkik, jainkoak, eta egiak, eta sentsamentua sortu egiten dizkik. Eta begira zenbat gauza sortu lituen, zenbat liburu dauden, enbat jainko, zenbat gauza sakratu, on eta txar, diabolikoak, niresgarriak. Danak dituk interpretazioak.

Karkara: Zer bide dauka pertsonak ezagutzea eta jakiteko, pentsamendua ez bada?

B.L.: Egin behar dana dek bera guztiz gobernatzen duen pentsamendu hori begiratu. Zenbat aldzigeratu ote zaigu, hau edo hura dala eta ez gaudela gustora, frustazio sentimendua daukagula. Orduan konpentsatu egiten dia-

gu. Beharrak sortzen dizkiagu. Batek auto berria nahiko dik, besteak dirua, harek bidai bat. Frustrazio horren trukean horrelako helburuak jartzetan dizkiagu, gure egonezina konpentsatzeko. Premia horiek arazo bihurtzen dituk, beraz pentsamentua art dek arazoak sorizen. Orduan hasten behar diagu gure arazo horien iturri begiratzen eta begiratze horretan askatasuna agertzen dek ikaragarri interesgarria. Izen ere ordurarte zahantzan jarrigabeko jerarkia eta jainko guztiengilea, pentsamentua, kolokan jartzetan dek eta hori jauzi kualitatibo ikaragarria dek. Hasten haiz hire behar horien jatorria ikusten, eta ordurarte hain garrantzizkoak izan diran balioak, hire izatearen oinarria ziranak desegin egiten dituk, konturatzen haiz asmatutako behar sikologiko horiek fantasmatxoak zirala, eta horietan isuri beharreko energia guztia orain gorde dezakeala. Asmatutako egitura ideologiko guz-

dek. Betti ari gaituk askatasunari mugak jartzen. Aske ba baina honaino. Hori ez dek posible. Askatasuna ez zegok neurizerik.

Ikus ditzagun pentsamentua sortutako beste mito batzuk, zergatik ote da jatea hain importantea? Bazekiat jan behar dala, baina ongi jaten al degu?, seguru nego jaten degunaren laurdena jango bagenu hobe litzakela, baina aldi hezilu geran moduan eta ditugun antsiedade guztiak nolabaiteko konpentsazio moduan sekulako afariak eta egiten dizkiagu. Sextuarekin gauza bera geratzen dek, errepressoaren ondoren estandartea etorri dituk, sexoa ona dek eta orduan zenbat eta gehiago hobe. Bainaz hor ez badago adimena, sexoa gauza baldarra bihurtzen dek, mekanikoa, itsusia, ez sortzalea.

Karkara: Ernegai eta adi ego behar duen gizon hori, heziketaren bitartez lortu behar al degu?

B.L.: Ez, bakoitzak norberaren adimena potentzialtu behar dik,



tiari begiratzen diokenean konturatzen haiz dana paperezko dala. Iparrik ez degunez, behar degu kirten bat hari heltzeko, gure ahulezi eta beldur guztiengabea izango dan euskarri bat. Bainaz gizonak berekin dizkik behar dituen tresneria guztiak bizitzarako, horiek martxan jartzetan jakin behar dikt. Bainaz aterpe bila gabilizkak, beldurrak, eta horrela ez diagu gure barrena martxan jartzetan. Bainaz esaten dekenean ez diat aterperik behar orduan hasten haiz lehen aldz gauzak ikusitzen eta orduan pizten dituk makian eta sutan jartzetan dek hiru adimen guztia. Askatasuna horixe

bere sensibilitatea, modelorik eta koderik gabe. Metodorik ez zegok, irakaslerik ere ez, norbera dek irakaslea. Adimen hori esnatzea bakoitzaren egitekoa dek. Ahalmena guztioak diagu. Kanpotik egin leiken gauza bakarra atximurra dek, esnarazteko. Hik atximurra egin, esnalzen dek eta gero ikusi berak egiten dikt, begiak dizkik horretarako, ezin diot esan hi begira hau nola dan. Ez, hori berak egin behar dikt. Lozorroan dagoenari eztenkada bat eman behar zaio, baina hortik aurrera ez zegok gauza askorik egiterik.

Iñaki Iturain

Kantuek bi osagai izaten dituzte, doinua eta hitzak. Doinuaren bitartez artistak bere sen musika-a gerizten digu eta hitzen bitartez berriz bere ideologia eta pentsa-kera.

Kantari baten iharduna hizetan denean, bai urtetan, bai kantetan gauza asko uzten ditu esanak, eta hauxe da Uxkunen kasua. Benitok gauza askorik kantatu dio, baina batez ere Euskal Herriari kantatu dio eta bere herrialde, mendi, ibai eta herrikoia eta bere historia lupon eta leindel.

Benitok sakonelik ezagutzen du bere herria eta sustraletar jotzen saiatu da, horretarako Euskal Herriko historia eta kantutegi herrikola aztertuz.

Sailkapen guztiak arriskutsuak baldin badira, orain egingo dudana are gehiago, halere ausartuko naiz esatera bere kantutegian hilu Benito agertzen zaizkigula.

Protesta Kanta

Benitoren hasierako garalak bat egin zuen denboran munduan zehar oso zabalduta zegoen joera batekin. Jendeak irauliza giroa bizitzuen eta kantariek herriarekin bat eginda protesta egiten zuten. Euskal Herriak Francoren diktadurapeko urterik latzenak zituen gainean eta Lertxundi bere lehen kantetan oso konprometitua agertzen zaigu. Garaiko atsekabeak eta iluntasuna adierazten

zituen, baina aldi berean itxaropena agertzen zigun, iritsiko zen udaberriarekiko esperantza. Batasun giroa ezagutu zuen eta batasuna aldarrikatu zuen. Politikarien papera jokatzea egokituzitzaion, beharbada kantariek zirelako zenbait gauza esan zezaketen bakarrak.

Benito errealtitatearen aztertzaile zehatza eta salatzalle zorrotza ezezik etorkizun asmatzaile ere bikaina izan genuen, «zer egin degu, ezer ez, zer egiten degu, alkar jo, zer egingo degu, alkar hil». Nahigabea eta Ixaropena batera ematen ziren euskal gizartean eta Benitoren kanta asko horren islada zuzena ziren, «umeek ere badakite zeln zaila zalgun bizitza, zeln erreza dan heriotza». Ekaitza izeneko kantuaren agerizten zaigu hau oso modu garratzean «ekaitzak ostoak daramazki, zugaitzak bilutsirik, negarra eta heriotz usala inguruan utzirik, baina segidan ekaitza zure indarra ez da traunkorra, udaberria etorriko da, berarekin lorea, bizitza berri bat etorriko da, legortuko dira malakoak».

Herriak askatasun bidean zerraman borroka haritan eguneroko lan isti bezain gogorrean zebilen illunpetako gizonari kantatu zion «illunpetako lantegi latzeten gure lurra iraultzen arti zerana, beso zainak daldarrez, begiak ikaraz, illunpetako gizon zaitut gogoan. Egun larri batez zu erorizean negar egingo degu».

Aldiz herriarekin uztartzen ez ziren sasi-intelektual edota patxada osoan bizi-tzeagatik morrontza-pear egoteko prest zeuden kontra hitz gogorrak ditu, «Gure Herriko Jakintsua, hitz politen jaun eta jabea, beti goitik behera begira zaudeña, baña behin ere lurra ikuitzen ez duzuna. Zure bultzaden zai dagoen herria ez ote da aspertuko zuri begira?

«Egia» kantarekin azaltzen digu adierazpen eskubidea ere nola zegoen garai har-

tan, «mendiak zugaitzak baditu, ibaletan ura dijoa, zeruak izarrak ditu, gizona da bizitzarako, egia handiak dira. Baina egia zertarako gizonak esateko balmenik ez badu».

Gure bide galduak da bere kantarik kutuneneko bat eta bere borroka ondoen adierazten dutenetakoak, «Gu gazteok gaur gabilta mundu galdu honetan gerra bat barruan degula zer egin jakin gabe, gurasoen mundu aldreibes hau ez degu onartzen, diruaren morroi izaten erakutsi dugu, bizimodu lasai batengatik idealak galdu, bizitzaren gauz ederrenak ditzkigute zapaldu».

Esan ezin ziren egia esateko batzutan metaforak erabiltzen jo zuen eta txorien eta loretxoen bildetako zegozkienak esan ahal izan zituen. «Loretxo», kantuan adibidez, «Mendian larrarte aurkitzen da loretxo bat, aurrean umetxo bat loretxoari begira, loreak esan nahi dio umetxo aska nazazu jaio nai librea izateko ta ez loturik egoteko. Umeboak ikusrik lorea ezin bizitrik arantzak kendu nahi dizkio bizi berri bat eman, orduan izango baitu indarra eta kemena orduan emango baitu ugari bere fruitua».

Herriaren askatasunari kantu zion bezala kantatu zion gizonarenari ere, askatasunari egin zion kanturik ederrenetako batetan, «Zure askatasunagatik burrukatzen banatz ez dut maite zautudalako kantatzen, zoriontsu, libre behar zautudalako balzik, zure askatasunean zure zorionean nerea ikusten dudalako».

«Haur bat» kantuaren boterearen zapalketa sasi-berdinzailearen kontra altzatzen da, «Haurra jipoi haute esku ezkerrez gurutze sanitua egin dinkelako, denak bezala eskubiz egiten ikasi behar duk, bestela ezberdina izango haiz eta hori gaizki ikusia zegot, denak berdinak behar omen ditek izan».

Beste kanta batzutan gure mugak gainditu eta zapalduta dauden beste nazio eta gizatalde batzutara jo izan du bere elkartasuna adierazlera eta Irlandaz, Bretañaz gogoratu izan da, «Entzun zazu» kantan, «Saint Maloko itsasoan herri bat nuen ausnari, haren kolkoan errotxik nintzen zuetako bat sentitzen», edota





Ne York-eko Harlem auzoko beltzkin gogoratzen denean «ez kanta beltzan», «zu beltza hazten bazera gu ere beltzak izango gera bein eta betiko burruka hortan nauzi berdin legeen kontra. Ez kanta, beltza, berriz ez kanta, itxi ahouk. Jaso ezpata, gure biziiza gurea da ta ihork ez beza lapurit».

Kantu epikoak

Aintzina omen da etorkizunari begira gidaritik onena eta Benito kantu ederrak eskaini dizkio Eusko Historiako pasarte garanzizko batzuri. Matalaz zuberotarrari kantatu zion Euskal Herriaren askatasunaren alde borroka zeagatik frantsesek hiltzera zaramatenean esan zituen azken hitzak hartuz «dolu gabe hitzen naiz, bizia Zuberoaren alde emanen baitut, egun batez jezikido dira eglazko zuberutarriak, eglazko eskuadunak tirano arrotzak hilteko».

Eta kantatzen dio aintzinako euskaldunek Karlomagnoren tropel emandako jipotari, hauk Iruña erre ondoren alzera Frantzitza zihoa zenean Pirineoetatik barrena, «Orreagako gatazka, irabazi azkena, gure ondamendiaren astapena, gerotzik artzarra galduxe dugu, galduxe kemeña. Itzaltzuko koblikaria kantari

ari zen, euskaldunak azkonak zorroztzen indarrak elkartzen eta Orreagako gatazkan lehen aldiotz Karloman eta dotze parla gaitzaielle atera ziren, irrintziak goraka, arriak biribil-kolika. Euskalerriak erakutsi zuen nor zen».

Muñagorriren bertsoak ere musikatu zituen, karlistadetako garaia ederki asko isladatzen dutenak eta gerren kontrako kanta direnak, «semiak soldadu ta preso gurasuak, ezin pagaturikan kontribuziyuak, trintxera lanetara gañera auzuak, dolorezkoak dira gaur gure pausuak». Eta kantatzen dio erdi historia, erdi mito den Garrot, Itzaltzuko Bardoari, gure herriaren gainbeheraren ablatadaren eredu izan litekeenari, kanpoko hizkuntz arrotzari, orduko latinarri aurre egiten saiatu zenari, «balina hik Garrot ez huen Abraham baten ohorerik eta Mikaelot euskal epikaren erresinola lurrari eskeini behar izan hien opari. Atzerriko latin zaleen uztarapean biraok hizkuntza basatiaz kantatzea ez baizen zilegi».

Kantu lirikoak

Azkenik Benito lirikoa eta poeta bere zenturik hertsenean. Ia bere kantu guztiak giro poetiko batzen barrian agertu badizkigu ere ondorengo hauek dira horretan mailarik gorenena lortu dutenak.

Hauen artean bereziki bere herriko neskoxa maite bat egindakoa, «Nere herriko neskoxa maite ahozko lerez zaitut gaur laztatzen, itsaso garden lur gozoko landare, kresalaren usain, zeru kolore, nere bihotzaren taupaden hotsez zure grazia dut kantatzen».

Euskal Herriko lurrak ezberdinak kantatzen dienean ere oso irudi poetiko ederrak lortzen ditu. «Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan soineko xuriz janitzia buruan orlegi, bihotzean sua, olerkari penaluaren gozo eta mina amodio eta kanta, zure berba

lehun zure gaitzaren bizia, zure burdinaren gorria dira gaur nereztat aterbe».

Edota Nafarroako Erriberari «Erribera zure landen zabalera ortzimuga den hartan mugatzen da. Zure lur emankorretan burtzen diren asmoak gogotsu hartuko ahal ditu lur gozoak. Nafarroa anal zaharra kondairaren lehen sustarra bego higan arba-soen amets hura».

Gure Lurrari honela abestu zion «Ol gure lurra, ene gogo-minaren ezti gozagarria, hiri so ene hatsa duk egiten ahoa abesti».

Benito Zuberoaren maitale da eta berak dioenez Zuberoak erakutsi dio gure eglazko zentzu artistiko eta poetikoaren zain heze eta bizia eta berak Zuberoari kantatu dio bere maitasun guztiarekin. «Zuberuko herria, ondatzen eta bersortzen diren naturen arteko etengabeko borrokan beti garaile. Zuberoko herria, lurrezko jakinduria jatorrizko bihia, munduko ardatza gure ardatzaren mundua, zuk asmatu dituzu kanta eta dantza. Jinkoak benedika zaltzala».

Atal honekin bukatzen gure ibaiari asmatu zion kantaren paseo bat. «Nik, zure barnetaraino murgildu nahi dut gaur, zure maitasunean igeri egin, eta hanxtze zure bustitasunean ablatuko naiz heriotza menperatzeko duzu sekretoaren billa, bixitzaren kantu zaren Orla ibaia».

Iñaki Iturain



KANPOTIK ETORRI ZAIZKIGUNAK:

ORIOKO KANPISTAK: «GU BERTAKOAK BEZALA SENTITZEN GARA»

Orioko kanpinak hasiera zallak bizi izan zituen, bere komunitatea eta bideragarritasunari buruz alderdi politiko ezberdinaren trizki kontrajarrriak zirela medio. Hau gertatu zela urte asko dira, eta urte horietan herriarrok oso jende ezberdina ikusi dugu gure hondartzan, kaleetan, taberneta-ko terrazetan eta txoko guztietañan bere galtzamotza, kirol-jantzi eta kanpinerako tramankuluekin aurrera eta atzera, ordurarte herriak irudikatzen zuen arrantza-le-giroko koadroari halako zer-tzelada turistikoak emanez. Horietako askok egun bakar baino gehiago ez zuten pasako gure artean, bainan beste batzuk berriz, denbora mordo bat daramate urtero-urtero ia hutsegia gabe, herriko plastikozko etxeden auzo horretako biztanle bezala. Hauetako batzuekin solasaldian aitzeko aukera izan genuen kanpineria joanda, eta hainbat gaixu buruz galdezko ere bai.

ÍÑAKI ETA JABIER

Bertan lanean ibilia den lagun

batekin sartu gara kanpinean eta errezeptioan Patxi «Xalbardin» topatzen dugu. Gure asmoa azaltzen diogu eta berak ere, lagundu nahian, hitzegileko prest leudekeen kanpista batzuen izenak ematen dizkigu. Hortan ari garela, gure lagunak irtezera doan mutil gazte bikote bat ikusi eta deitu egiten die: Iñaki, etorri piskatean! Zeeer... entrebista bat?, eta argazkieti guzti? Hi, aditzen al dek? —bere lagunari zuzentzen zajo—. Hasierako erreparoak gaindituta gure proposamena onartzen dute eta denok kanpinaren barruan dagoen bordaruntz abiatzen gara. Hango mahai batean eseri eta besterik gabe hogei tahiru urteko Iñaki Barragan eta Jabier Fernandez bergaratarrekin elkarritzeta hasten dugu. Iñaki da «jela puzkatzen» hasten dena: «Nik gutxigorabehera hamalka udara daramazkit Oriora etortzen. Hamar urte ntuela gurasoek ekarri ninduten lehendabiziko aldiz eta harrez geroztik urtero etortzen gara».

Zer moduz moldatzten zarete herriko jendearekin?



«Herriko jendearekin inoiz ez dugu arazorik izan, alderantziz, gure koadrilan herriko jendea ere badago, nahiz eta gehienetan kanpinean osatzen diren kondriletan bertako jendez izaten den, bainan zenbaitetan herriko gazteak ere egoten dira». Jabier ados dago Iñakiren hitzak.

Nola definituko zenukete Orio?
«Nik oso gual den kostako herri bat bezala, eta gurearekin konpartatz oso ezberdina».

Batak zein besteak dioenez, Orion ia dena beren gustoko da, herria, jendea, hondartza; «garbi dago, bestela ez ginaleke etorrak» esaten du Jabierrek farrezka. Bergarako gazte hauentzat bi gauza txar omen daude bakarrik, kanpinerako bidea eta hondartzako aparkaleku. Beren ustez, horrenbeste jende biltzen duen tokia honek beste itxura bat ematea mirezi omen du.

Kanpinari ez al diozue «ghetto-baten tankera ematen?

«Nik ez dut horrela ikusten—esaten du Jabierrek—«neretza herri bakarra dago, eta lehen esan bezala, hemen ez gaude hain isolaturik, herriko jendearekin harremanak badaude. Ez dut inolako zailketa finkik ikusten. Beharbada zerbaile antolatzea denontzako ez litzateke gatzki etorriko, garai batean uda bukaerako festak ospatzen ziren, bainan bakarrak kanpisenitza izaten ziren». Zuen eskuetan egongo balitz geratuko al zineteko hemen biziitzan?

«Nik Orio opor eta asteburuak pasatzeko tokiztak daukal baina betirako ez. Hemen egunero biziko banitziz, seguruena oporrak pasatzen beste norabaitera joango nintzateke, badakieu, gauza tokiz aldatzea izaten baita». Jabier trizki berekoia da eta, gutxigorabehera, lagunaren arrazoi berdintsuak ematen ditu nahiz eta gero Bergaran ere ondo bizi dela gaineratu. Urte huetan gertatutako anekdota edo bitxikerien bat izango duzue, ezta?

Orainixe bertan ez naiz exertzaz gogoratzen —esaten du Iñakik— «nola asteburu bakoitzaz historia ezberdin bat izaten den». Farre batzuren arlean bukatutuztatz ematen dugu saioa,

OSA ETA İNAKİ

Bergarako multilak despeditzen i garen bitartean, bordarako biltzak emakume eta gizon bat guina dator. Gure lagunak bi personak ezagunak ditu biak eta, enok elkartzean, ohizko aurzpenak egiten ditu. Gizona iñaki Azpiazu da, Ormaiztegikoa, makumea, Rosamari Ariza, urango aldekoa. Biak berrogeinaren urre inguruari dabilta eta amineko lagunak dira. Berriaz ordan sartu, lehen eserita egon ariren mahaiaren jiran kokatu eta karritzetari ekiten diogu.

er dela eta Orio aukeratu?

oiztik zatoste?

Nik Oriora etortzen hogei urte ramazkietan, horietatik hamabost jandeetan eta horrela eta azkeneko bostak kanpinera. Nere kuan hona etorizearen arrazoia arbi zegok: neri mendia gustatzen zaidak, andreatsi berriz hondartza, eta hemen biak pauso bera zeuzkaguk. Gero hondartza inguruari sortzen den giroa, launekin poteoan ibiltzea... haiera horrela izan huan, gero la-

gun batek karabanarena esan zitxian eta kanpinera etortzen hasi gindun. Rosak hartzen du txanda: •nik bederatziz bat urte daramatzat. Hasieran kanpinean egoten zireni Durangoko lagun batzuk bizitzatzen etortzen ginen nolz behinka. Guk garbi geneukan oporrak pasatzeko •aire libreko• tokia bat nahi genuela gure seme-alabentzat, eta Euskalerrian kanping prestatu samar bakarra Oriokoa zen. Orain Bizkalan eta beste hainbat tokitan egon badau, bainan ez dituzte eskeintzen hemengoak dituen abantailak.

Gaien sartzen garen heinean biei antzematen zaie poztasun bat herriarekiko duten iritzia adieraztean. Berriaz Rosa da, bere hizkera garbi eta lassiaz, solasaldia-ren hariari gogo onez heltzen diiona: •Orio herri txikia da, eta neretxat, horixe da dituen gauzak ederrenetako bat, ez duela bere herri-giroa gaidu. Udaran bertan ere nahiz eta kanpotik jende asko etorri, nere ustez herriak ez du galtzen bere noriasuna, beste kostako zenbait herriki gerlatzen

zaien bezala, esate baterako Lekeitio, Zarautz etabar. Beharbada hemen ez da horrelakorik gertatzen gatozenak diruz ez garelako got-mailakoak, beraz ez diogu ezartzen herriko jendeari inolako martxa edo •mobida• arrarorik. Ni hemen oso gustora sentitzen naiz. Orion ondo dabilzala ez da go zalantzaz jartzerik, beren komentario guztiak hori pentzarazten dute behintzat.

Zuen ustez herriko jendeak nola ikusten zaituzte?

Iñakik: •nere irudipenerako orain oriotarrek kanpina eta kanpineko jendea begonez ikusten ditek, bainan hori ez dek beti horrela izan, zergatikan orain dela urte batzuk Bilbotik eta Donostiatik etortzen ziren zenbait kanpisten joknera oso txarra huan, dena harro-harro eginda ibiltzen hituen kanpina beraienta bakarrik balitz bezala. Orain ez da horrelakorik gerlatzen. Iñakik oso garbi dauka herriko jendearekin ondo konpontzeko jatorki jokatu behar dela, bera hortan salatzen da.

Rosak orain: •kanpistok ez gara ondo ikusiak herriko jendearen gehiengoa engandik, normalean etorri izan garenok, etorri gara kanpinera besterik gabe, eta ez diogu gure buruari planteatzen, alegia horrenbeste jende kanping honetan sartuta, ea honek zer eragiten dion herriari. Nik errua ez diet botatzen kanpistek eta herriari ere ez, bainan Orioko kanpina munizipala denez, herriko agintariekin aztertu beharko lukete kanpina zerlarako nahi den eta herriari kanpin bat izateak zer suposatzen dion.

Rosak ez du uste kanpina gehito bat denik, hala ere bere ustez denon partetik imajinazio pikat jarri gero, urtean behin izango balitz ere, zer edo zer antolatu liteke kanpineko eta herriko jendearen arteko harremanak hobetzeko. Iñakik bere aldetik, herriko jendearekin bat egiteko onena San Pedro eta San Nikolasetan, beste edozein bezala, jaigjira bertan sartuta bizitzea dela esaten digu.

Ahal izanez gero Orion bilitzen geratuko al zinekete?

Iñakik: •Noski baletz, neregalikan balitz bihar bertan etorriko ginateke, baina gauza ez dek hain



erreza. Rosak ere bailez esaten du gustora etorriko litzatekela eta ez iukela izango bere jaizterriaren enbidiariak. Berak lehen alpatu duenez herri txikiak gogoko ditu: «Donostia batean, nahiz ederra eta txukuna izan galdu egingo nintzake».

Kanpinaren barruan giro euskalduna somatzen al duzue?
«Euskara entzuten da, bainan bailez ere tunceta eta gaztetxo artean, gero helduen artean, euskaldunak izanda ere, erderaz nagusi da salatzen du Rosak. «Honean nik katalana izan nahi nuke, horiek, beste gauzen artean, beren hizkuntza defenditzeko behar bezalako neurriak hartzeko galitzan dira eta».

Orloko euskal giroaz galdeztzerakoan dudarik ere ez dute egiten herri euskalduna dela.

«Orion jende asko zegok kanpotik oso gazte hona etorrira eta euskeraz egiten duena» esaten du Iñaki. Rosak gero zera adierazten du, berak badakielo kanpinera etortzen diren Bilbo inguruko batzuk, Orion aukeratu izan dutela bere seme-alabek euskera landu eta giro euskaldun hortzitzeko.

Galdera guztiak bukatuta, bertako tabernara goaz zerbaile haritzera. Iñaki eta Rosa ere gurekin dator. Barran zerbaile hartzen ari garela, Patxi agertzen da alboetan bi gazte dituelarik.

ION ANDER LASA ETA XABIER ORMAZABAL

Patxi komentitu ditu guregan etortzea, balina argazki-kamara ikusi ta baldintza bat jartzen digute: «elkarriketa bat balina fotografiarik ez». Tolosako gazte hauekin akordio batera alegatua, kaseta martxan jarri eta hasten gara.

Jon Anderrek dituen hemezortzi udaretatik hamalka Orion pasa ditu: «Oriola etortzearen nere gurasoen erabakia izan zen. Herriak lasai eta politika fama zeukan zuen eta etortzen hasi ginen, eta nola aurreneko urtea ondo pasa genuen orain ohitura bat bihurtu da».

Orio nola definituko zenuke?
«Neritzako herri txiki bat oporrak

pasatzeko oso ondo dagoena. Bainan neguan ez dago ezer». Xabierrek lagunak esandako sa-kondu nahi du «neguan oso gutxitan etortzen gara eta aldaketa asko nabaritzen da. Hondartzako txirringiloak, diskotekak dena isten dute, eta kalean jenderik apena ikusten da».

Aipa itzazue Oriok dituen alderki onak eta txarrak.

«Hondarzia dauka, piszina eta mendia ere bai eta gainetik Donostia eta Zarautzko oso gertu da».

Gazte hauek nabaritzen dute herriko eta kanpineko jendearen artean halako problema batzuk bidaudela eta frogatzeko bezala piszina-guretzat bakarrik izatea, ez dira konturatzen guk pagatu egiten dugula horretarako. Bainan auzia ez omen dago horren galzki, izan ere geroxeago kanpineko gazte asko herrikoen lagunak egiten dira eta koadrila berdinian ibiltzen.

Etorriko al zinekete Oriola bizitzera?

Jon Ander: «ni nere herrian oso gustora nago bizitzen, eta hemen udararekin nahiko dugu». Xabierrek: «Oriol neguan nahiko aspergarria izan behar du, ezer ere ez bait dago, gainera jende gutxi

eta hondartzara joaterik ez. Badakit orduan gazte asko Zarautzera joaten dela».

Kanpinean euskara zenbat entzuten da?

Ion: «Kanpinean denetik entzuten da, nere iritziz jendeak gehiago jotzen du erderara, bailez ere an-drean arteko solasaldiak». Xabier: «Gertatzen da jende asko dagoela euskeraz ez dakiena, gure taldean adibidez, lau euskaldun egonda, nola beste guztiak eraldadunak dira, erderaz hitzegiten da». Guzti hau kanpineko giroaz esaten badute, herriko giro euskaldunaz galdeztuta bestelako da beren erantzuna, alegia herri arrantza delako edo Orion herri euskal-euskalduna dela esaten dute.

Gazte hauek geroxeago adierazten digute Orion ez direla kanpotarrak sentitzen, bertakoak baizik.

Azkeneko hitz hauek gogoan hartuz amalizten dugu elkarritzeta halek emandakoaren kontaketa. Gure partetik eskerrak beren hitzakin lantxo hau erreztu duten lagunei.

OHARRA: Ion eta Xabier, baratu azkenean argazkia jartzeagatik, bainan argazkiak merezi zuen, ezta?

Jabier Galton



ORIOTARRAK MUNDUAN ZEHAR

ALBERTO OLIDEN

Laguna dut Alberto. Udaletxean nean hasi nintzenarekin batera an nuen berarekin tratuan hasiko aukera. Orain bezalaxe garai ariaren ere, gure lanak zirela eta, ikarri probetxua ateratzen genion eta hori ablapuntu ezin horra da harren manetarako. Horri horela izanda, KARKARAko zenbaki onetan aztertai nagusia musika dela eta ORIOTARRAK MUNDUAN EHAR sektio honetan nahitahilez Alberto Olidenekin hitzgin behar zela argi azaldu zitzalinean, elkar hizketa neronek gingo niola erabaki nuen.

Alberto pertsona ezaguna da errian. Orain dela hiru ogeletar urte jaiotako gizon honek salina bat ibili egin du munduan char Easo Koruarekin kantari. Ikerriko jende askori, bestalde, Mario Vasco-ko Orioko korrespondentzia delako zalo ezagun, urte nordoa bait darama horretan. Jaur egun, bistarekin izan dituen razo zenbait direla eta, utzi sarrututa diri Korua; kantatzeari ez dio, ordea, utzi: Orioko elizan maiz nitzuten da oraindik Albertoren hotz garbi eta konfundituezina.

KARKARA: Aldizkariren orri inuetara ekarri bazaitugu, Alberto zu munduan zehar dexente militakoa zeralako izan da. Ba al eztu laburtzerik hitz gubitan Koruarekin egin dituzun biale irrinteenak zein izan diran eta oietan bizitzea tokatu zailzkizun sperimentzia destakagarrienak?

LIBERTO: Elzakela pentxa erre-danik, urte askotan ibili gaiak-eta batera eta bestera. Hikintzak kontu ni «el año cincuenta y uno» hasi nitxuala Coro Easo-k kantatzen eta gerotzikan ibil urte pasa diran... ni, momentu hontan, Koruko zaharretakoa nauk.

Lehenbiziko bialea, hau ondo ogoan zeukat, Parisa egin nian, oruan hasi eta handik bi hilabetetara. Hura neretzako importanta izan huan, ze orduan ez huan gain bezela, Parisa edozein juten, uretzako hara jutea gauza iaundia huan. Harrezkerotik kaneste este zazpi bider egon gaituk Parisen kantari. Beste bat altatzea nerezi duna Italiako Arezzo-n zertamen internazionala irabazi genuneko dek. Hori «cincuenta y

tres-ean izan huan; zertamenean hogeltamar koru baino gehiago gifuau eta guk irabazi genian aurreneko sarria. Coro Easo-k irabazi dituen lau zertameneletatik bi ni barruan nengola irabazi dizkik, hau aurreneko eta, bederatzit urte beranduago, «sesenta y dos-en, bigarrena, hura ere Arezzo-n.

Gero, Europa guxtia korritu diazu guk Koruarekin, Euskal Herriko bantzak guztiek pasa dizkiagu, Espainiakoak ere bai asko; Frantzian ere izanak gaituk Nantes-en, Lyon-en, Balonan, Burdeos-en makina bider, Lourdes-en... toki askotan! Gogoan diaz baitsa ere, egin genuen lehen kruzeroa «seientzien» egin genuela: Bilbotik abiatu eta aurrena Londres-era, gero Estokolmo, Koppenhage, Leningrado eta Hanburgo pasa gentzikan etxera buelta egin aurrelik. Gero, Grezian-eta ere bai eta... Errusian eta... Lisboan Igor Stravinsky-rekin ere bai eta...

Karkara: Uste dedanez, Europatik kanpo ere izana zera kantatzen, ezta?

A.: Balta. Mejiko, Akapulko eta Merida ere kantatu genian orain bi urte. Nik egindako azken biale haundia izan dek hori. Kantatu hiru toki holetan egin genian balna bialea ez huan hor bukatu; Koruko lagun batzuk Nueva Yorkera ere jun gifuau bost bat egun pasatzen, balna hara turista gisa jun gifuau.



Horenen dotorre ateratzen zen eszenarioira

Halere, nik kantante bezela egin dedan gauzak importanteena, dudarik gabe, Ariel Ramirez-en Misa Criolla kantatzea izan dek. «Sesenta y cinco-en izan huan hori, oiker haundirik gabe. Orduan ibili gifuau zazpi gizon easotarrak eta bederatzit emakume Mallea Korukoak —orain deseginda zegok koru hori—. Bastida genian Direktore, Hilabeteko jira egin genian. Mezaren autorea bera ere, Ariel Ramirez bera, gurekin huan pianoa jotzen. Guak jira hartan egindako aktuazio bat telebisioan hartu eta gero eguerrian bota zien Espaini guztirako. Hura gauza haundia izan huan, nik egin dedan haundleena. Entrebista hau publikatzen dekenean, beste guztia kentzea badaukak nahi badek, balina hori altatu behar dek.



Gabeneko korua zizentzen oritu zen Alberto zenbait urtetan. Ordutako fotografia da hau

Karkara: Aditua dizut inoiz Alta Santuarentzat ere kantatu izan dezutela. Izan al zenun hau gerutik ezagutzeako aukera?

A.: Nik ezagutu dizkiat Alta Santuak... hiru! Baino bertatik bertara e? aldamenean izanda, Baiezuzkat horren fotografiak. Aurren-aurrena ezagutu genian Pio XII, gizon hura mistiko impresionantea huan. Harentzako kantatzen zian gihuau; hasi gihuau kantatzen... badakik, elizako kantak eta... eta berak, «no, no, cantad una cosa brava», eta Aragolko jota bat kantatu genitxion. Gero, berriz, beste urtean Juan XXIIIekin zian gihuau; haren, berriz, segidan, beste impresio zeharo diferentea ematen zian, haundia huan, tripazaghi hoietakoa, eta gizon onaren planta guztia zian. Azken Alta Santu honekin ere, Juan Pablo IIrekin ere, zian gaituk orain denbora asko ez dala; honi zilarreko bandeja bat eta disko bat erregalatu genitzezkan.

Karkara: Nolatan hasi zinhan Coro Easo-n kantatzen? Nondikan datorkizu kanturako joera hori?

A.: Ni kantuan txikitau hasi nitzuan. Belitu, ni nitxebilen elzan monagillo eta orduan hasi nitzuan piska bat kantuaren zera hontan sartzen; gero Santiago Azurzak osatu zian Orion korua eta bera hasi huan solfeoko klasiek ematen eta jendeari erakussten. Garai bat zian huan jende asko ibiltzen gifuinala koruan, berrogeitik gora ere bal, gogoan diat nerekintz batera ibili zirala nere edadeko oriotar asko. Guzti haietako nik bakarrik segitu diat kantatzen. Gogoratzan nauk, baita ere, —ni nahiko txarra nitzuan solfeorako, kostaldeko ikastea— nola hasieran atzera samar ibiltzen nintzeta eta batzuk nola parre egiten zidaten. Gero, handik urte batzutara, Santiago Azurzak beste guztien aurrean zera bota zian behin: «Zuek honi parre egiten ziozuen, baina orain zuek guxtiak baino gehiago ballo di». Harro asko ibili nitzuan ni temporada batean!

Gero, nik kanturako joera belli izan diat. Pentxa ezak ni Coro Easo-n hasi berria nintzala, egun askotan egin behar izaten nula Donostiari entsalotara jun, han,



Baina... nor da Albertoren aldamenean dagoen txuriz jantsitako gizon hori

ondorenean, etxetik eramandako bokadillo txiki bat afaldu eta, nola bueltako autobusik ordu hartan ez zegon, bertan gelditu lotan lagun baten etxearen. Akordatzen nauk Donostiatik gaueko hamarrtan ateratzen zan lineaiko autobusa jarri zutenean neretako ze adelanto haundia zian zan.

Karkara: Eta orain zer? Erabat utzita al zaude Korua?

A.: Ba bai, entsailotara-eta ez naizela juten badek urtebeteko edo. Bateko, bista txarra dala, eta bes-

teko, hankak ere ez didala lehen bezela responditzen. Orain, por ejemplo, Georgiara ziatzik korukoak eta ni ez naik. Etxekiat, piska bat nekatuta ere baniok, laister berriz ere okulistena Joan behar diat eta ikusiko diat, haren segun ze esaten didan, zer egin, korua utzi edo beste piska batean segitu... ikusiko diat.

Karkara: Kantatzeari ez diozu, halare, inoiz utzi. Oraindik ere Orioko funeral guzti-guztitan kantatzen dezu eta, esaten duteenez, sentimendu haundia jarriaz.

A.: Bai, hala dek hori. Nik Orioko elizan egiten diran funeral guztitan kantatzen diat eta, nola Orion, gutxi edo gehiago, danak ezagutzen geran, ezin dek ebitatu kantatzeko emozionaltea. Gainera nik beti esan izan diat bi kualitate ditu dala kanturako onak diranak; bat, hori, emozioa jartzen dedala, sentimendua, eta hori oso importantea dek kantatzeko, eta bestea —hik ezagutzen nauk eta badakik— ez naizela errebatzen, beti ere aurrera egiten dedala; fallo eginda ere aurrera segitzeko kapazitatea izatea oso importantea dek, bai eszenario bat gainean eta baita bizitzan ere.



Javier Zabaleta

ORIOTARRAK



JOSE RAMON SAN SEBASTIAN

Jose Ramonek Orioko txaran gan jotzen du, txaranga hau kazetan den aldi gutxietan eta gainera TXANBELA izeneko folk taldean orain dela hiru urtetik. Txanbelan abotsa jartzeaz gain gitarra jotzen du eta panderoa, iriskittinak, kuxareak, flauta eta xarangan jotzen duen tuba la berri baino handiagoko hori.

Txanbelak 3 diskak argitaratu ditu eta Joserrak azken bietan parte hartu du. Azkeneko diskako ikanta batek taldeko bost partideen aurkezpena egiten du eta oriottarrari dagokionean zera esaten du:

**Orioko seme hau faldeko zakilauta antena beti erme (parraldera piztuta horrez gain pastelero ofizioa jabetua beti daskagu neska politza*

ingurututa.
Azken diska hau joan den urtea bukatzean zegoela kaleratu zuten eta malatzean Bretaña izan dira beren musika zoragarria erakus-tera.

Aurreko diskak argia ikusi zuen Jose Ramonek egin zuen lehenengo gauza ale bat hartu eta zuzenean Patxi Danbolinengana joatea izan zen, opari haren bitartez bere esker ona adierazteria eta aitzortzera Patxiri esker iritsi zela bera diska batengen grabaketan parte hartzera. Izan ere beste hainbat bezala Patxik erakutsi zion Jose Ramoni musikaren bide eder bezain zailean lehenengo urratsak ematen. Hau idazten duenari ere berak erakutsi zion kitarrari lehenengo doinuak ateratzen, eta beti musutruk.

Txoko honetatik, gure omenalditxoa musikaren bidean aurrera egin duten guztiei, baina batez ere bide horretan besteek aurrera jozko lan ixila eta eskergaitza egin duten perisora anonimo guztiei.

KARMELE ARANBURU

Karmele izango seguru asko oriolar kazetari profesional bakarra. Aspaldiko urte hauetan Donostiako Herri Irratian egiten du lana, informazio saloetan batez ere. Kazetaritza ikasketak Irunen eta gero Madrilen burutu zituen. Hemezoritzi urte zituela 1977 urte inguruan, eta artean karrera bukatu gabe, praktika-saloak egiten hasi zen Donostiako Herri Irratian eta gerotziki han segitu du lanean. Politika eta ekonomia dira berak gehien lantzen dituen galak. ETB2ko «El otro punto de vista» telesaloan ere parte hartu zuen Eugenio Ibarzabalaren laguntzaile moduan.

Karmele da beraz lehenengoa oriottarron artean, kazetaritzaren alorra jorratzen. Anjel Lertxundi-rekin batera, honek literaturako joera gehiago duen arren. Baina gauza segurua da ez direla azkenak izango. Badira bi neska, Miren Etxeberria eta Idoia Etxeberria kazetaritza ikasten ari direnak Bilboko Leioako fakultatean eta dagoeneko kazetari lana egiten ari direnak, orain irakurtzen ari zaren aldizkarirako hain zuzen. KARKARArako,

Bestetik Zaragueta: eskolako HEGAZ aldizkarirako kazetari gaztetxoak ditugu. Ez da ez etenik gertatuko, etorkizuna segurua da.



ORIOTARRAK



ITXASPE ANAIAK

Eskuzko pelota ordu txarrak arida ezagutzen azken urteotan. Gure herriko frontoia, politikodegirik eta kultur-ertxerik ezean askotan pelotarako ez beste zeregin askotarako tokia bihurzen da. Pelotarako dagoenean ere sarritan hutsik, eta frontoira joaten diren haur asko tenis-takea batetik. Garbi dago egoera ez dela onena pelotaren etorkizunerako eta noski gero eta pelotari gutxago dago.

Gauzak honela pozgarria da jakitea 21 urteko mutil gazte batetik irabazi duela herriko eskuz banakako pelota txapelketan, finalean 27 urteko bere analari nagusitu ondoren. Bi anal hauek •Itxaspe• baserriko Juan Mari eta Agustin Irastorza dira. Ederki asko erakutsi dute baserraren harrobia oraindik ere ez dela agortu eta euskal kiolaririk onenen artean asko direla baserrilik atera direnak.

Final hori malatzaren 12an jokatu zen eta Juan Mari 22-19 irabazi zion Agustini. Zaletasuna handia daukate. Askotan Joan

izan dira biak frontoira arratsaldeko ordubietan, lanetik ateratzen eta berriro lanean hasten arteko tarte aprobatxatuz. Baina kexu dira ia aukerarik ez daukatelako partidurik jokatzeko. Txapelketa honean 5 pelotari besterik ez dira izan. Prest daude inguruko edozein txapelketatan parte hartzeko baina batengatik edo besterenengatik azken urte hauetan ez dute egokieratik izan.



OLESKARIAK

Garai batean arraunlariak bezala gaur egun kantariak esportatzen ditu Oriok. Honen frogaburmena Zarauzko OLESKARIAK abesbatza dugu, hamalau kantari osatzen dute talde hau, eta horietatik lau oriotarrak ditugu. Bixente eta Jose Luis Segurola (Ixokolatarrak), Santi Ibirriaga (Santi Maspildi) eta Ramon Etxeberria (Barrabas). Honekin garbi ikusten da gure herria kantariak ematen ebezik goitizena asmatzen ere zeln oparao den.

Oleskariak 1964. urtean sortu zen lagunartetik zortzikote bat osatuz, Manolo Urbietaren zuzendaritzapean. Geroztik zenbait sari eskuratu ditu kantari talde honek, besteak beste Arrasaten izandako zortzikoteen txapelketa nagusia 1968an eta hurrengo urtean, ordurako 18 abotsetako talde bat osatua, Gasteizko •Arabako Abestien Txapelketa•.

Bere abesti gozo, alai eta sakonak Euskal Herriko txoko gehinetara iritsi dira honez gero, Gure herritik kanpo, Frantzia, Venezuela eta Mexikon ere izan dira. Boat diska kaleratu dituzte da-goeneko.

Ander Letamendia, gaur egungo zuzendaritarekin, Oleskariak euskal abesti herrikolak lantzen eta zabaltzen dihardute, eta luzerako izan dadila.

ORIOTARRAK

RAFI

Rafa Villafranca, «Rafí oso exagonal da Orion. Orain Zarautzen bizi bada ere hiru urte eman zituen gure artean eta hamabost urteko Altz bere semea Orion bizi da.

Hiru urte horietan bere zaletasunik handienetako bat landu zuen gure herrian, futbolarien masajalarria izan zen Antillako zelaian eta gero arraunlariena. Garai hartatik berak istorio hau kontatzentzu du: «—behin Kontxako estropadetan uretaralno lagundu nituen arraunlariak, lepoan arraun bat nuela, hura ikusi eta bertan zeuden ikusleak, harriturik, oriotarrek arraunlari beltza fitxatu zutela hasi ziren zabaltzen...»

Joan den urtetik Rafí «La Sonora Candela» izeneko «salsa» musika taldeko kantaria da. Banda hau 15 partaldeko osatua da, eta horien artean aurkitzen dira beste bi erdi-oriotar ere, Mariarro eta Juan Yeregi anal-arreba hernaniarrak.

Rafí da hain zuzen ere «La Sonora Candela»-ri salsa talde bat dagokion kutsu karibetarra eta hizitasuna ematen diona. Izen ere Rafí Caribekeko Errepublika Dominikarrean jaoia da eta hori dela eta salsa txiki txikitandik ezagutzen du. Berak dioenez «salsa» barren barrenetik ateratzen zaio, kantatu baino bizi egiten duelako.

Dagoeneko Donostian, Bilbon, Zarautzen eta beste hainbat tokian agertu dira bere erritmo «salseroarekin» eta ETBko Funtzioa saioan ere bail. Bere kanta batek dioen bezala musika hau entzun eta dantzan hasten ez dena burutik edo dagoelako.

HAIKA

Hirurogeitamarretako hamarkadan «The Beatles» bezalako taldeen eraginez rock taldeak ugari tu egin ziren eta nonahi sortzen hasi.

Orion ere eratu zen rock talde bat, 1971. urte inguruuan Juan Jose Iparragirrearen ekimenez. «Haika» izenarekin batalatua izan zena. Beste bi oriotar ere aritu ziren talde honetan, Jose Manuel Moran (Kitarra) eta Javier Rodrigo (bateria), gainontzeakoak zarauz-



tarrak ziren. Goikoaiko soto bat izan zen gazte hauen saloen testigun mutua.

Haikak ez zuen bizitza luzea izan, bispahiru urte besterik ez zuen iraun. Tarte horretan Gipuzkoako zenbait plaza eta frontoi ezagutu zituzten beren Joan etorriean, Burgoserainga Iristi zirelarik. Orioko plazan ere egin zuten bere agerraldia.

Instrumentuak erosteko kredi-

tu bat eskatu eta hari aurre egiteko berbenetan eta ezkontzeta jotzen hast eta horrela asperitu egin ziren aguro eta bertan behera utzi, nolabait ere erakutsiz ez dela erreza aurrera ateratzea musikaren mundu honetan. Gerotik musika mota honek ez du segidatik izan gure herrian.

IJIMOTO



UDALETIK

POBREZIA GAUR EGUN

Bada denbora dexeente gizarte-komunikabideak Euskadiko pobrezia buruz hitz egiten ari diera, zenbait datu, pertsona aditu-en iritzia eta alderdi politikoen jarrairak eskainiz.

Gal honi buruz, gutako batek baino gehiagok galduet lezake: zer uertu behar da pobrezia hitza erabilten denean? zein kontsideratu behar dugu gaur egun pertsona pobre? gure artean, ba al dago pobrerk?

Ez da erraza pobrezia definitzea. Askotan pentsatzen dugu pertsona pobre eskale dabilena edo txaboletan hizi eta aspektu zikina edo kontu egin gabeoarena dueña dela, baina ez dirudi definitzio hau oso egokia denik, pobrezia-maila hori ez bait da agertzen, gaur egun, miserta handienean bizi direnen taldean baizik, eta hau iceberg handi baten punta besterik ez bait da.

Izan ere, pobrezia gizarte baten ezaugarriekin lotuta dihoa. Oso fenomeno sozial erlatiboa da eta bizi-ko eran suertatzen diren transformazio eta aldaketekin zer ikusi handia duena. Pobreziak ez ditu bakarrak kontutan izaten superbizipen fisikorako beharrakosak diren gauzak, baizik eta, baita ere, elementu sozio-kultura-ak. Pobreza ez da pobre izaten abstraktoan; gizarte, kultura eta bizi-ko modu baten erreferentzia-markoaren barnean baizik.

Gure artean, azken urte hauetan, berreskurapen ekonomiko bat hasi dela esaten da, baina gehiagi ahaztu dugu sektore ahulenen errekuperazio kulturala eta soziala. Teknologia berriek langabezia sortzen segitzen dute, laneko kontratazioak gero eta flexibleagoak eta noizik behinkago-koak dira, lana izateko eskubidea gero eta gutxiago dago zaindua.

Pobreziako Planaren aplikazioa Orion

Pobreziaren aurkako ekintza Euskal Gobernuak duen Europa 93 Planaren helburu nagusietako bat da eta 1989-1992 urteen barruan aplikatzeko asmoa du.

Dudarik ez dago Orion zona pribilegiatu batean bizi garela. Gure herrian ez dago pobrezia



absolutua edo miseria deitzen dena, hala ere, badira pobrezia erlatiboko zenbait kasu.

Izan diren emaitzei buruz hausnartzerakoan, 1989 urtean, bederatzi hilabetetan zehar, eman ziren kasutan zentratuko gara.

tean familiako pertsona batentzat elbarritasunagatik laguntza lortu zen; beste batek bere kabuz lana bilatu zuen; beste bi pertsonak, berriz, udan udalak sortzen dituen lanpostuetan lan egin zuten eta, beraz, gero desenpleguan

Familiako gutxienezko diru-sarrerak

Familia	Pertsona kopurua	Arazoa	Hileroko dirua	Alta	Baja
A	5	Langabezia	19.061	89-05-01	89-12-01
B	6	Langabezia	15.816	89-05-01	89-07-01
C	4	Drogomen-pekozaluna	23.165	89-05-01	89-12-01
D	3	Langabezia	40.000	89-05-01	-----
E	6	Separazio	10.000	89-06-01	89-07-24
F	6	Langabezia	22.028	89-06-01	89-08-30
G	3	Langabezia	23.334	89-08-01	-----
H	4	Separazioa	12.500	89-08-01	-----

Koadroan ikusten den bezala, zortzi familia izan ziren gutxienezko diru-sarreren maila horretan sartzezko aukera izan zutenak. Horietatik bost kausa desberdinengatik baizik ziren: kasu ba-

kobratzeko eskubidea lortu zuen, eta, azkenik, beste pertsona hauek batek berronegatik urte baino gehiagokoentzat ipinita dagoen desenpleguko laguntza kobra zezan lortu zen.

Larrialdi egoeratarako dirulaguntzak

Kontzeptua	N	%
Alkilerra	373.133	14,56
Etxebizitzaren mantenimendua	243.150	9,49
Beharrezko muebleak	308.372	12,03
Etxeko elektragailuak	345.005	13,46
Konponketa eta instalazioak	394.131	15,38
Lehen mailako beharrak	690.748	26,96
Sortutako zorrak	207.043	8,08
GUZTIRA	2.561.582	100,00

Hasiera batean Oriori 2.411.582 pta. tokatzen zitzaizion bere biztanle-kopurua konutar hartuta. Koadroan azalitzen dira kantitateak eta zein kontzeptutan eman ziren dirulaguntza iauek. Ikusten da tokatzen zena balno 150.000 pta. gehiago gauatu zirela eta diru gehiena lehen mailako beharretan eman zela.

Balorazio orokorra

Guztira 43 familia izan ziren Udaleko Gizarte-Ongizate Zerbitzura laguntza eske jo zutenak eta guztia hauen kasuak izan ziren arretaz aztertuak. Horietatik 22 sartu ziren laguntzetan; familia hauek 79 perisona bilizen zituzten.

Arazoei begiratuta, banatutako dirua honela gelditzen da

ARAZOA	Eskera kopurua	N	%
Pentsio bajua	8	303.370	11,84
Ama ezkongabea	1	130.000	5,07
Langabezia	6	1.048.508	40,93
Arazo psikologikoak	1	100.000	3,90
Separazioa	2	368.988	14,40
Drogomenpekoetasuna	1	124.685	4,86
Pertsoria askotao familia	2	342.031	13,35
Endeudamendua	1	144.000	5,62
GUZTIRA	22	2.561.582	100,00

Azken koadro honetan problematika nagusienan nabarmentzea vahi izan da baina familia gehietan arazo bat balno gehiago bilzen zen.

Pentsio bajutan, zortzi kasuak atik zaplirugarraren adinekoak egozkien. Laguntza kasu hauean etxeko mantenimenduko astuak (argia, ura, telefonoa, asa...) arinizearren eman zi-zaien.

Ikust daitzekeen bezala, lagunten % 41a langabeziak jotako familieet zuzendutakoa izan zen.

Informazioa egunkarietako herriko sektzioaren, Karitas-en, Itsas Elxearen, Zaharren Babeslekuan eta Orioko etxeetako buzolen bidez eman zen.

Usle dugu Plana tresna ona dela udalerriko behartsuak eta arazoak dituzten familiak detektatzeko, nahiz eta ez ahazi, Europako zenbait estudiok dioten bezala, gutxienezko diru-sarrera honetarako eskubidea dutenek %50 eta %70 tartean izaten direla lortzen dutenak. Zergatiak? personen erreparrea, lotsa, kon-


trolatuak izateko beldurra, etab.

Kontutan izan behar da, baita ere, EUDEL (Euskal Herriko Udal Elkartea) behin eta berriz esaten ari dena, alegia, plan horrelan sartzen diren pertsona eta familiek beren intimitatea errespetatua izateko eskubide osoa dutela eta horri garrantzia handia eman behar zalola.

Esan beharra dago, baita ere, ez dela erraza plenaren aplikazioan Justizia osoarekin jokatzea, batez ere bigarren mailako laguntzetan. Beti aleginak egin beharko dira, ahal den neurrian, planak jartzen dituen baldintzak betetzen.

Bukatzeko, esan Euskal Parlamentuak 1990eko maiatzaren San Ezarpen gutxienezko diru-sarrerako Legea onartu duela eta lege honek 1989ko otsailaren 28an emandako dekretua ordezkatzen duela. Legeak aldaketa positiboak dakartzza eta, bestalde, gutxienezko diru-sarrera garantizatzen du Euskal Herriko Komunitate Autonomoan.

Udaleko Gizarte-Ongizate Zerbitzua



Ez dakit gurasoek musikarako jao ole ninduten balna zazpi urterekin galdu nituen aukera guztiek, analak, igerian erakutsi nahi zidala eta uretara bota ninduean. Ez nuen okasio hartan igerian ikasi baina tinnpano bat hau tsirik irten nintzen esperientzia hartatik. Harrez geroz, ez duk tutik ere entzuten belarri batetik, eta bigarrenetik ere apena.

Ez dago, beraz, musikarako dohainez munduratu ninduten jakiterik, egun hartan ito zitzakidan eta nituzkeen abilidade guztia.

Kantatzen hasten naizen bakotzean ingurukoek nire arrantza desafinatuak eraman ezinik ibiltzen direnez, hobe duzu, irakurle, nire oroitzapen musical eskasei buruzko lero hauek irakurtzea nire eztarri lakartutik aria, bolero edo baladaren bat espero izatea baino. Horl, dakisunez, beste Lertxundi bat dagekio.

Lehen oroitzapen multzoa:

Mesila gainean Baserriren liburu bat ikusi nuenekoa. Bertan kontatzen dira bertsolaritzari buruzko beste zenbait oroitzapen ere.

Uste dudanez, Atano-ri eskaini zizkion bertsoekin argitaratu zuen Basarrik bere lehendabiziko liburua. Irakurtzen ikasi berria, ezagutzen nuen doinu bakarrekin ahaleginzen nintzen liburuxkako bertso guztiek, zortziko handi nahiz txiki, hamarreko nahiz kopla, kantatzen. Nekien doinua, den arruntena, Basarri berari jarri zioten puntuarena zen:

Zein da bertsolaririk onena Spainian?

Eta Basarriren bote prontoko erantzuna:

Manuel Uztapide nere Irlitzian...

Ez dakin zergatik bota zuen erantzun hau Basarrik, bere burua espainoltzat ez zuelako edo, aitzilik, benetan uste zuelako Uztapide zela hoberena. Ez da gaurko nire gala eta ultz dezadan zintzilik errezeloa...

Kuestion da doinu horretara egokitut nahi izaten nituela Basarriren liburuxkako bertso guztiek, batzutan silabak lizatuz, bestetan nota musical bakar batean hamar bat silaba kabitu zi-zezen ahaleginduz... A ze kuixida-dea bertsolan aritzekol

Bigarren doinu bat ere bane-ki-en, egia esateko. **Bautista Bas-terretxeren**, baina ez betiko le-

tra ezagunarekin, Longako artzainak Benta bertsolari adarjoleari behingoz isil zedin kantatu zion letrarekin baino:

**Errekoño, puñeta,
karajo ta koño,
loitan sartuko al aix,
sartuko al aix loitan
ipur zuloraino!**

Balna ezin kantatu izaten genuen Longako baserritarraren, gurasoak haserretu ez zitezen hainbeste errekoño eta hainbeste puñeta.

Orain haletakoa da beste oroitzapen bat ere: autobidea egitekoan bota zuten Lizargarate baserriko bi leibo ditut gogoan eta bertatik bi berisolarik kantari San Martin egunez. Artean sei-zazpi urte besterik ez eta bertsocil jarman egin ordez, jolasean ibiliko ginen zalantzarak gabe.

Balna saloa amaitu zenean, heldu jendea haserre zen; nola zitekeen hain beriso lizunak kantatzea jende aurrean eta umeria guztia han inguruan! Gero jakin dudanez, berde antxa portatu ziren bertsolariek, zakilak eta guzi alpatzera ere iritsi omen zirelarik.

Eta jende heldua guzti hark gure bihotz garbletan izan zeakeen ondorio gaiztoaz kezkatuta, gu inguruko intxaurrondaren

arrak astinzen ari ginen bitartean...

Hemen amaituko ditugu berolaritzari buruzkoak. Eta Lasarrak galdeztu du auzokoan nuela kienet batek. Izango al dut ste okasioren batean merezi en beta eta arreta eskaintzeko norerik!

garren oroitzapen multzoa:

•tako falangista batzuren albo mesa izan zenekoa. Bertan tropadel eta Urte Eukaristikoari buruzko oritzapenak ere erakusteko zaizkigu.

Obarzar-eko hondartzan, falangisten plazan alegia, kanpalan zeuden multil batzuk itziren trienteak eramanda. Ez naiz oitzten zenbat izan ziren itzak. Bi? Bost?

Falangista Jazkeraz betetako errri batez orolitzen naiz. Eta plaren erdian, hainbeste jenderen irrean antolatu zuten azken urrarekin. Eskolatik eramango nitzuten, noski, gogoan bait dut boan nituela orduko bi lagun, a gogoratzan naiz kantatu gela denok «Cara al sol». Ez zen txikiagorako, sekulako sargiora eta eguzki betearren oroitzapegordezen bait dut, besteak ste, egun hartatik.

Beste ikuskizun klase bat izaten nuen, noski, estropada bat irazi ondorengo festa. Allron, all... Halaxe Joan ginen behin milia osoa Itziarra (pentsatzen egun hartan elbarriak eta induak bakarrik geldituko zitza herrian) ordurarte irabazitabandera guztien eskaintza jar-eko Ama Birjinaren eskueuztera. Don Antonio Izañ ote Itziarko Ama Birjinaren hima erakutsi ziguna? Ezin esan:

Zeru eritz batetik ta
besteralno,
ez da izar ederragorik
zu baino:
zeruetatik etorri zinhan,
Ama, Itziarra,
hor zaude geroztik zu
Itsasoko Ama...

Eta, multzo honen barruan, Ur-Eukaristikoak zela eta egin zen pakizuna, hau ere herriko plazan. Aldare altu bat, apaizak in-



guruan, agintariak, musika banda eta sekulako parafernalia... Arratsa, zalantzak gabe. Himno eukaristikoak latinez, euskaraz eta espainolez. Benetako plurilinguismoa orduan generabilen hura! Bandaren ondoan nengoena eta tronpetaren ahoak bete-beantean astindu nahi zuen arren nire tinpano hila, alferrik, honako hau Iberdueroko poste bat baino tenienteago, zut eta serio. Orolitzen naiz bandako bat etorri zitzaldala:

—Belarria zulatuko dik hotsak, motell!

Eta nik:
—Zeeer?

Hirugarren oroitzapen multzoa:

Irratia etxera ekarri zuteneakoa. Bertan ematen da berri ordutik gogoratzan ditudan erdal kanta batzurena.

Haundia zen, benetan, katxarroa. Telefunken. Nik usite nuen etianoren bat zegoela sartuta bertara eta hark ematen zigula Franckok inauguratutako pantanoen berri. Behin amak garbiketa egin nahi eta buelta etman zion arte. Han barruan ez zegoen enanorik, saguek egindako habia txukun askoa baizik.

Irrati hari esker, bihotzez maite dudan oroitzapen musikalua. Jarrisko al da inolz berriro ere modan:

Es el Cola-cao desayuno y merienda

*es el Cola-cao desayuno y
merienda ideal.
Cola-cao, Cola-cao,
Cola-Caaaa!*

Eta guztia errepruditu ezin dudanez, azkeneko perlaik:

*...Lo toma el ciclista que es
el amo de la pista,
y lo toma el boxeador,
pomi pom!,*

*que boxea que es un primor.
Orioko garai hartako makina
bat neska gazteri jarri zitzaldon
emozioz begiak bizi-bizi honako
kanta hau entzunaz:*

*Escaleras de la cárcel,
solita me entretenía
contando los escalones...*

Makina bider kantatutakoa da gure etxearen lana egiten zuen Maria Miranda ere etxeko eskailera garbitzen ari zen bitartean...

Doce cascabeles» berri, irrati adina ikasi genuen zineari esker. Sissiren balsak bezala. Eta orain dela gutxi telebistaz errepikatu duten «qué será, será...» mafagarriaren modura...

Baina irakurle, Bizkaiko esae-rak dioen bezala, «munduko zortxarak be ez dira amaibakoa, eta nere honi agur esateko lenorea iritsi zaio. Erritoxdiak San Juan eskean zebilela Bentan kantatu omen zuen kopla honekin amaituko dugu:

*Gaurko onetan kantatu degu
emen bertsoa ugari;
ste guziak itxiak daude,
argirik ez da ageri.*

Anjel Lertxundi

KARKARA LITERATURA-LEHIAKETA

Antolatu genuenean begenuen, zergatik aitortu ez, dexenteko preokupazioa gure lehen literatura-lehiaketa honek izan lezakeen harrerari buruz. Gero ikusi ahal izan dugunez, gure hasierako kezka haietan ez zuten fundamendu handirik nahiko lan kopuru polita izan bait da parte hartzeko aurkeztu dena. Zinez esan dezakegu aukera egitea ez zaigula inola ere erraza gertatu —epaimahaian aritu direnek badakite hori— eta sarituen zerrendan sartu ez direnen artean ere badagoela merezimendurik nahiko.

Epaimahaiaaren erabakia honako hau izan da:

OLERKIA

1. SARIA. 10.000 pta

Titulua: **Adiskidea-laguna**
Egilea: Naiara Campos Morey

2. SARIA. 5.000 pta

Titulua: **Euskara**
Egilea: Asier Gozategi
Abaurrea

3. SARIA. 3.000 pta. Bi lan hauen artean banatua:

Titulua: **Zoriona**
Egilea: Naiara Campos Morey

Titulua: **Gautxoria**

Egilea: Patxi Uranga Salbide

IPUINA

1. eta 2. SARIA. 15.000 pta. Bi lan hauen artean banatua:

Titulua: **Amets biren suntsiketa**
Egilea: Nere Manterola
Arostegi

Titulua: **Harrien sekretua**
Egilea: Ainara Agirre

3. SARIA. 3.000 pta. Hiru hauen artean banatua:

—Elixabete Illarramendi Fernández, egindako lan eskergagatik.
—Naiara Campos Morey, Ibilaldia ipuinagatik.
—Nere Manterola Arostegi, **Lagun baten heriotzaren ondorioak** ipuinagatik.



AINARA AGIRRE



NAIARA CAMPOS

OLERKIA

— 1. SARIA —

ADISKIDEA-LAGUNA

Egilea: Naiara Campos Morey

Adiskideak onak direla
daukagu oso enizuna.
Askolat haitz eskeintzen dute
behar dugun maitasuna,
baina oso maiz traizioa
da guk jasotzen duguna
horregatikan bakardadea
dugu sarritan laguna.

Nere ustefan lagun onera
dugu bakotzaren ama.
Berak jasaten du txintik gabe
ondorio txarren zama.
Inoiz agorizen ez zaion su bat
bihotzean hark darama,
izar artean lagun hoberik
ote dezakegu asma?

KARKARA LITERATURA—LEHIAKETA

IPUINA. 1. SARIA (konpartitua) «HARRIEN SEKRETUA» Egilea: Aina Agirre

Denok dakinuen bezala, harriak existitzen diren izaki bizienak dira. Beralek jasotzen dituzte ger-taera guztia. Historia txildak eta inguruan gertatzen den guztia.

Harriek esker ezagutzen ditugu gure arbasoen gerakizunak, beraien bizimodua, nola errebatzen zuten, nola lan egiten zuten eta abar.

Ez zaizue behin ere bururatu, harri aztarna bakoitzean, zulotxo bakoitzean, historia bat harrapata dagoela, eta espalolak lotzen dituen harri eta hormaren artean soldifikatu den leienda bat dagoe-la?

Askotan gai hauetan pentsatzen egon naiz, eta aztarnaren bat berreskuratzentz salatu naiz, eliz haletan errebatzen edo horma haien artean bizitzen egon zen jendearen aztarnaren bat.

Beti sinistu izan dut nere herriko etxe zaharrak, edo adolkinet egindako kaleak, edo arkaitzeo horma biziak, horren gainean elizpea dagoelarik; Indar berezi bat egiten digula, imanak bezela, eta Indar horrek lurralde lotzen galtu, haziak botaraztea egiten digu, gu eta lurra artean lotura sakon eta puskaezina eginez.

Buruan galdera guzti hauetan, parapsikologialko aldiak bat heldu zen nire eskuetara. Hauetako artikulu batetan, airean sostengatuta gelditzen ziren ahotsak nola grabatzen ziren erakusten zuen.

Gau hartan, kassete bat ipini nuen ordu batzuk grabatzeko. Ebte Zahar batzen alboan ipini nuen. Gau hartan, interesatzen zitzaldan gauzik ez zuen grabatu, igaro-tako gauean ere, nik espero nuen gauzik ez zuen grabatu.

Esperantza galtzen hast nintzenean, beti inspiratu nauen toki batetan jarri nuen grabagailua; nire herriko elizaren alzean, har-kaltzeko mendixkak egitura berri bat dauka; leun eta berotsua, mendeek gastatua. Neskatxa bat nintzenean historia magikoak amesten nituen toki hartan.

Hurrengo egunean, nire grabazioen fruitua jaso nuen; Haize otzan eta txistu bolz batek, ia musikaz, farfara egiten zuen, ia magiko zen. Itsasoko hotsa entzutea iruditu zitzaldan gainera. Gero haldea izatea zeukan solnua edo gizaki baten ahotsa izan dalteke: Joannness, Joannness...

Ilehuna tingo ipini zitzaldan, emozioz beterik nengoan, baina ez neki zer entzuten nuen.

Ahots horrek eziki esan nahi zidana deszfiratzetan egon nintzen egun batzutan.

Ondorengo grabaketan, hots berdinak, baina orain emakume Intziri bat entzutea iruditu zitzaldan, hain ixil eta tristeak ziren bere penak, malkoak nere begietara heltzea egin zutela.

Ez neki zer bila nezakeen guzti honen hasieran; bi hilabete igaro ziren, zinta halek neuzkan, baina ez neki nola eman hurrengo pausoa.

Zintak eskuan nituela, herriko erretorearen gana Joan nintzen.

Serioski eta begitara begiratzen entzun zuen nire historia. Zintak entzun ondoren, honela esan zidan: «Gal honek obesjonatu egin zarela pentsatzen dut. Hor entzuten den hotsa harkaitz artetik irten den halzearen txistua izango da seguraski». Eztabalda eduki ondoren erretorearen hitzak gogoratu nituen eta arrazoi zuela pentsatu nuen. Dena nire fantasia zen, obsesio bat.

Emakumearen ahotsak, baten bat ez joaleko eginez; Joan ez, Joan ez..., eta intzirk halek... hatzea besterik ez zen.

Egun hartan, atea ireki nuen, nire bizitzako sorpresari handiena jaso nuen; herriko erretorea nirekin hitzegitera elorri zen. Barria sartzeko esan nion.

Zeharo harrituta nengoan bere aurkezpenarekin. Egin zituen ikertek kontatzen hasi zitzaldan.

Heriotzen orri zahar batean emakumea izen bat zegoen: INESA DE ILLUMBE, izen hau orriaren behe ezkerraldean idatzita zegoen, zeinu arraro batzuk izena laguntzen zuten, eta 6-10-16367 zen data.

Zer esan nahi zuten inskripzio halek?

Erretorea aztertzen egon zen eta emakumeak bere burua hil zuelako ondiorira heldu zen. Bainazergatik heriotzaren datan galde-ra ikur bat? Agian bere gorputza aurkitu ez zutelako.

Erretorearen susmoak logikoak iruditu zitzaldikan eta berarekin ikertzen hasi nintzen. Emakumearen bizitza hain zuzen.

Parrokiko liburusk, batzuetan susmaezinak ziren. Hala ere, aur-

ki genezakeen guztia errepasatu genuen. Gure ahaleginak fruitu ematen hasi ziren; emakumearen bizitzaren arrastoak aurkitu bait genituen. Mila seleun eta hamazpi urtean jalo zen urtarilaren hamabian zehazki esanda. Honela jakin genuen hil zenean heretzi urte bakarrak zituela. Etxaniztar Johanes izeneko gizon batekin ezkondela (ezkon agiria) zuela ere aurkitu genuen.

Erretoreea eta ni konplizitatez begiratu ginen, hura zen klabea: Johanes eta ez Joan ez, nik uste nuen bezala.

Inessaren bizia berregin genuen. Dokumentu haren bidez, bere altaren testamentuaren bidez, bere izenean utzi zuela, jakin genuen Inessa txikia txantx ume-zurtz gelditu zen. Bere izeba izan zen bere amandrea, ezkontza prestatu zuten arte.

Inessak oso maitemindua egon behar zuen, zeren Johanes Terranobara Joan zenean, Inessa erotu egin zen. Hondartzan bere senargalari hotsegijen hasi zen, noragabe antza, horrela desagertuko zen seguraski.

Ondorengo informengatik, Johanes 1667 urtean hil omen zen Terranoban.

Misterioa argituta zegoen; baina zergatik jarraitzen zuen emakume harek intziri egiten?

Erretoreak anima erratu bat zela esan zidan, lur sakratuetan hilobiratuta ez zegoelako eta elizatik pasa ez zelako. Animari paketako bidea, berarekin kontaktuan jarri ginen leku berdeinkatzea zen.

Oso berandu zen, etxeetako argiak itzal zitzaten itxaro genuen. Erretoreea nagusiki jantzii zen. Julieta harengatik txilik errezatu genuen, amadioaren poztasuna ezagu zuen andrearen gaitan. Erretoreak, arkaitzen huskune batetan, bedeinkatutako hostia bat ipini zuen.

Etxera itzultzean, hau esan zidan:

Emakume gaixo horri lagundu egin diogula pentsatu behar du-gu, kassete hori berriro ez duzula jarriko zin egingo didazu.

Nik batetz egin nion buruarekin.

Hurrengo egunean hostia ez zegoen. Agian txoriren batek jan zuen, baina hobeto horretan ez pentsatzea...

Konfirmaziyu

Maiatzaren hogitaseia larunbata izan zen eta gau harian gazte asko eta asko zebilen herriko tabernetan, lepotik painelu gorriak zintzilik zituela. Bati aditu nion Zumaiako jendea ote zen, baina keba oriotarrak ziren, beste batzuk komunistak ote ziren, baina keba gaur egun inor ez da ausartzen komunista denik aitorizera, eta San Ferminetarako artean egun asko falta ziren.

Azkenean jakin genuen egia. Gazte guzti halek KONFIRMAZIYUA izan zuten arratsalde hartan eta painelu gorriak ez ziren Errota jatetxeko serbilletak baino. Ez dakit zein sinismen mola konfirmatu ote zuten egun hartan baina seguru asko Errotako jendeari eta batez ere bihamonean muturrak jertsearekin garbitu behar izan zituztenel ez zaiet gehiegiz gustatuko KONFIRMAZIYO hori.

Umore beltza

—Hola, ayer estuve en el Herri Urrats, ¿tú no fuiste?

—Ez, ni ez nintzen joan.

—Ah no, y cómo así?

—Ni mendira joan nintzen, ez zait gustatzen hainbesteko jendetza biltzen den tokietara joatea.

—Jo, pues lo pasamos pipa.

Umore beltzezko nobela bailek ateratako pasarte bat dirudi aurreko honek, baina Orioko errealtitate askotan garraitz-komikoarenislada bat besterik ez da.

Oriyo Guiness liburura

Orion ere Guiness liburu bat prestatzeko asmoa gara, marka asko art bait gara txikitzen aspaldit honetan, eta liburua irekitzeko iruditzen zaigu egokiena ondorengoa dela: «Munduko marka Itsasoan superbizitzan». Izan ere gogoratuko zaretenez Orioko bi gizonek 15 egun eman zituzten Itsasoan txalupatxo batean galduta, motora gelditu zitzalelako, jateko laranja batzuk besterik ez zeukan, eta urrik ta ez ezer. Eta zorionez bizirik agertu zitzazkigun herrira, osasun ezhnobearen gainera, haletako bat bihamonean footing egiten ikusi bait omen zuten.

Gure baserritarra informatikaren alde

Denok dakigu gaurregun zein garantzi handia duten teknologi aurrerapenei eta horien artean, dituen aplikazio ugariak direla eta, informatika dugu nagusi.

Guzti honetaz jabeturik Orioko bi ikastetxeetako irakasicak hor art dira burri belarri tresna ahal guztidun hauen gorabehera guztiak beren ikasleei irakatsi nahian, eta horretarako ikastolakoak jadanik hastak bidaude, Zaragueitakoak dira orain informatikako gela bat montatzekotan dabiltsanak.

Guk entzun dugunez, ona izan bada herriko gurasoek asmo eta berrikuntza hauen aurrean azaldutako jarrera, denon harridorarako baserritarrena izan omen da proiektu hauet emandako balezko borobilena.

Hona hemen gai honetaz hitzegiten ziohan baserritar bikote batzuk entzundakoa:

—Alzak, enteratu al halz gure seme-alabek eskolan zer ikasten duten?

—Informatika edo arraio hori, ezta?

—Eta hiri... zer iruditzen zaik?

—Zer nahi dek esateal! neretzako ezcola bate galzki neska multilak titiki-titikitik «ordeñadoreekin» ibiltzen jakitea.

La bolsa de valores

Diario Vasconen Orioko kronikan oso albiste harrigarria irakurri genuen halako batean, alegia aurreko astean erosle gehiago izan zela saltzaile baino osteguneroko plazako azokan, hango produktu guztien prezioarekin batela.

Beste inongo herritan ez bezalako informazio zabala eta interesgarria eskeintzen zaigu Orioko azokako prezioen gorabeheretaz.

Baina gauza batzuk piska bat gehiago zehaztu behar dira; porruaren prezioa agertzen zen baina ez zen esaten porru hori jateko zen ala erretzekoa.

Tentsioa hartzen itsas etxeen

Itxas Etxera ostegunero Gurutze Gorrikoak etortzen dira zahar jendeari tentsioa hartzera. Lehengo batean joan omen zen agure bat eta tentsioa hartzeko neska gazte bat egokitu zitzalon. Neskak tentsioa hartu ondoren esan zion agureari: «...ba bekua Iyo egin zaizu... eta zaharrak, erdi lotsaturik baina harrotasun puntu batekin, praketara begiratuz: «ba ba egila da, barkatuko didazu...».

ORIO' S SHOP

Moda gaztea
Eusko Gudariak, 17 Tfnoa: 83 12 44

ITURAIN OKINDEGIA

Ogia, bollitoak, egunkariak eta KARKARA
Aritzaga

ERTZA



Usaindegia
Eusko Gudari

OLIDEN HARATEGIA

Tfnoa: 83 10 86

TRAGOXKA TABERNA

Aritzaga

IL GELATO


Helatuak eta Kruasanak
San Nikolas, 17

DORRONSORO JANARIDENDA

Beti zure zerbitzuan
Abeslari, 3 Tfnoa: 83 09 37



Bideo-produkzioak
Aritzaga, 6 Tfnoa: 83 38 81



P. Salsamendi

ORIO 1911